

Lemoako Memoria eta Kultura Astea maiatzaren 6tik 12ra

13. orrialdea

Lemoa Kustik maiatzaren 11n

Nøgen, Dead Bronco, Jon Gurrutxaga & Urbil Artola, James Room, Mississippi Queen Duo, Empty Barrels, Larregi, Lorelei Green eta Birkít egongo dira Lemoan kontzertu akustikoak jotzen Lemoa Kustik jaialdiaren hirugarren edizino honetan. Goizeko 11:00etan hasiko da Arraibin, Birkít gasteiztarraren kantuakaz. **13. orrialdea**



Zeanuriko Erroten XIV. Ibilaldia maiatzaren 5ean izango da

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

317

2019ko maiatzaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

EAJ-PNVk, EH Bilduk eta PSE-EEK boto gehiago jaso dabez

Apirilaren 28ko Espainiako Kongresurako hauteskundeetan, Arratia, Ubide eta Zeberion, EAJ-PNVk izan ebazan boto gehien, 4.021, emondako botoen %44. Bigarren indarra EH Bildu izan zan, 2.918 botogaz (%32).

Hirugarrena Elkarrekin Podemos izan zan eta laugarrena PSE-EE. Areatzan, Artean, Bedian, Igorren, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion EAJ-PNV izan zan lehenengo indarra, eta Arantzazun, Diman eta Ubiden, EH Bildu. **5. orrialdea**



Gazte-justizia zerbitzuko zentroa martxan Areatzan

Areatzako moja-komentua izandakoan, hainbat nerabe dagoz heziketa, laneratzeko eta gizarteratze prozesu baten barruan, gurasoenganako indarkeriagaitik epaile batek holan aginduta. Zentro hori Berriztuk kudeatzen dau.

Berriztuk 28 urte daroaz gazte-justizia zerbitzua eskaintzen. Irabazi asmo bako erakunde honetan, batez be Hezkuntza arloko profesionalak, baina baita psikologoak eta beste profesional batzuek be egiten dabe behar gazteakaz.

Areatzan dagozan gazteak Oinarizko Lanbide Heziketako ikastaroak daukiez bertan, *Sukaldaritza* eta *Eraikinen mantenimentua*, hain zuzen be, baina kanpoko baliabideak be erabilten ditue eta gazteak euren institutueta jarraitutea bultzatzen dabe Berriztuko pedagogoak. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA

Jabekuntza Eskoleak nortasuna indartzeko prozesua abiatu dau

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea hazten doa eta bere nortasuna indartzeko prozesua abiatu dau. Lehenengo egitekoa, eskolari izena emotea izango da. Logo barri bat be sortuko dabe eta nortasuna ordezkatzeko dauan material grafikoa be bai.

Maiatzaren 11n, Jabekuntza Eskolearen 2018-2019 ikasturtearen ebaluazioa eta hurrengo ikasturterako proposamenak egiteko topaketa egingo dabe Diman. **7. orrialdea**



ARRATIA

Ganadu eta baserriko produktuen azoka sasoia da Arratian

Maiatza ganadu azoken sasoia izaten da eta Arratian hainbat azoka egoten dira lehenengo hamabostaldi honetan. Ezagunena Zeanuriko San Isidroko Azokea da, baina ez bakarria. Areatzan, V. Ganadu eta Artisau Azokea izango da hilaren 4an Karpon eta Dimak maiatzaren 11n izango dau Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eskulangintza Azokea. **5. eta 7. orrialdeak**

DIMA

Danel Elezkano pelotariari alkarrizketea

Eskupelotako Euskadiko Binakako Txapelketea irabazi eta ospatu ostean, Danel Elezkano Aspeko pelotariari egindako lan guztiak merezidu izan dauala pentsetan dau. Zararamon sortua, 20 urte ingurugaz Dimara etorri zan, amaren herrira. Enpresa Administrazioa ikasi eban Sarrikon eta tributazioaren gaineko masterra be egin dau. Eta pelotan, lorpen handiak ditu: 2011n, Baque tomeoko buruz buruko txapelduna izan zan Gazte mailan, baita El Diario Vasco-Bankoa Lehiaketako txapelduna Promesetan eta Euskadiko binakako txapelduna Gazte mailan. 2013. urtean Promozinozko banakako txapeldunordea izan zan, 2018. urtean EPELen binakako txapeldunordea eta aurrean binakako txapelduna izan da Beñat Rezustagaz batera. **16. orrialdea**

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Literatura txokoa

MAREN, LIBE ETA OIER

Gazteentzako literatureagaz jatorriku Alaine Agirre oingo honetan. Eta adierazo behar dogu eskertu egiten dala holango proposamen freskoakaz topo egitea. Halanda be, betiko kontua... Gazteentzako literatura, gazteentzat baino ez da? Zaharrok ezin geinke gazte-literatureagaz disfrutau?

Txandaka saileko hiruko honek gazte zein helduentzat egindakoa emoten dau, eta halantxe aitortu dau sarri autoreak: ez leuke gura liburu honeek gazteentzako literatura moduan klasifikatzerik.

Gure protagonistak 16 eta 20 urte bitarte daukiez, eta munduari, besteai eta euren buru eta barrenai begiratzeko modu diferentek. Gauza asko daukiez

deskubriduteko: sexua, harremanak, askatasuna, dudak, bildurrak, mina, gaixoa...

Euren errealidadeak bat egin, eta alkarregaz bidaia bateri ekingo deusie. Bidaia horretan, aurretik eukiezan uste eta pentsakera sendo eta seguruak jausten hasiko dira, krisian sartuko dabek eta hainbat pasadizuk. Euren barrenekoak eta kanpokoak hobeto ezetuteko okasinoa izango dabe, eta leidunten dogunok aldaketa eta transformazio horreen testigu bihurtuko gaitu Agirrek.

Maren dogu lehenengoa, eta ha leidunten hasi eta lasterrera, atrapatu geratuko gara, gazte zein heldu. Gaur egungo gaz-

tetuak erabilten dabezen erreferentziak erabili dauz idazleak. Igarten jako gazteak literaturara bildu gura dauzala, eta, horretarako, estilo labur, zuzen eta dibertiduan eskribidu dau. Hasikerako eszenak be irakurlea atrapatu gura dau: gaztetxu biren arteko sexu eszena esplizitu eta patetikoak. Istoria arin doa, eta konturatu orduko, lehen liburua akabau, eta bigarrenagaz hasteko gogoia eukiko dogu.

Guraso, irakasle, hezitzaile eta beste askoren ardura izaten da gazteak liburueta hurreratzea. Ba horixe berori opatzen deusku idazle bermeoztarak. Gure gazteak literatureagaz disfrutetako hirukoa, eta geuk be sano gustura leiduko doguna: *Maren*, *Libe* eta *Oier*.

Mikel Urkixo Aierdi

Alaine Agirre

Maren, Libe eta Oier

Erein. Txandaka saila



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Aprilaren 29tik maiatzaren 5era

Rodriguez Martinez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 6tik 12ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 13tik 19ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren

902 543 210

Areatzako Notarioratza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak:

Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Rake Aldekoa Diez eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Maite zaitut, lagun

Berba bi horreek dira errudunak. Dana aldatu daiteke berba horreek esanda, edo entzunda, edo ez. Hurkoak badakiala pentsetan dozu: "zertarako esango deusatz, bada, berak badaki?", edo barregarri geldituteko aukerea gailentzen da: "zer pentsauko dau nitaz?".

Eta bizitza aurrera doa, eta eguneroko kezak eta buruhausteak, inongo erruki barik, marketan deusue bidea: "autoari orioa aldatu beharra daukat", (hil ala bizikoa, hil!), "barikuroko urtebetetze jaia Ermitabarrin oingoan", (zirrargarria)...

Eta zu, itsu, bera ikusten dozun egun urri horreetan Athletic-ez edo Altsasuz egiten dozu berba. Eta "agur!" esaten deusazu, segurua, "hurrengora arte!", fidakor, egun hori laster helduko dalakoan, eta ez dakizu ikusi dozun atzen aldia dala. "Zelan jakin behar neban nik, ba?", galdetuten deusazu zeure buruari, "aztia ez naz eta!".

Eta sinesgogortasuna uxatzen dozonean, tristurea dator, erabatekoa, latza, astuna, harri baten modukoa.

Eta ondoren hausnarketea: **ROBERTO CALLEJA AROZETA**

"zergaitik egin ete dau?", "gizabanako guztiak bere buruaz beste egiteko eskubidea dauka?" "jakina", erantzuten dozu, baina, Roker, nire laguna... "zu ez, kabroi halakoa!", "zu zoriontsua zinan, beti brometan, zirika, alai...".

Eta hausnarketea sakonagoa bihurtzen da: "zer jakin dot, benetan, lagunaz? Behar besteko arretaz entzun neutsan zuritotan ibili ginan egun haretan?" "Eta esan ez ebazanek ulertuteko prest nengoan?". "Eta oindino gehiago, noz izan da lagun bat entzun dodan, bai, zintzo entzun esan gura dot, atzenengoa?" Zein erraz jaten gaituan ohikeriak eta zein denpora eskasa eskaintzen deusagun benetan garrantzia daukanari!

Amaitzeko papela hartu dozu eta, burua lar urratu barik, idazteko preminari erantzun deusazu. Oin ez dozu dudarik egiten, konbenzi- duago zagoz, berba biak esan behar harko zeuntsazala uste dozu, lotsa barik, ausardiaz. Akaso, berba biak esanda zeozer aldatuko zala darabilzu buruan. Eta, zinez eta minez, bada zeozer aldatu dana: zeu aldatu zara, pitin bat bada be, edo holan uste dozu.

ERETXIA

Kotxe elektrikoa, jasangarritasunaren bidean

Kotxe elektrikoaren inguruan eztabaidatzen dogunean ezinbestekoa da mobilidadeari buruz berba egitea eta arlo horretan kokatzea. Herritarrok mobilidade barri bat eskatuten dogu jasangarritasunaren alde apustu egini, inguruneagaz garbia, baina era berean ziurra, merkea eta eroso. Helburu hau lortzeko erabilten doguzan kotxeak eta batez be honeen erabilera aldatutea posible egiten daberen teknologia ugari dago gure eskura momentu honetan.

Gauzak holan, automobilgintzak daukan erronka barri honetan kotxe elektrikoak indarra hartu dau. Ingelesetik datorren CASE akronimoak (Connected, Autonomous, Sharing —alkarbanatua— Electric), "E" honek daukan eta eukiko dauan eragina gure artean ez da makala izango baina ezta bakarra be.

Etorkizuna ulertzeko epeak finkatzea beharrezkoa da euren erabilerearen berehalakotasunaz hausnartzeko. "A" autonomous (bakarrik dabileren kotxea) oindino teknikoki konplejua izateaz gainera, legeak eta gidatzeko araudien moldaketak dakar beragaz gure errepideetan ibili ahal izateko. Bestalde, "S" sharing (personen artean alkarbanatzea) gaur egun sarri ikusten dogu erabilera, baina kotxearen jaubetza konpartidutea oindino bareratu beharreko gai bat dogu gure gizartean. "C" connected, (internet erabiliaz erabatean konektuta) mobikorra lotutako teknologia erabiliz jadanik posiblea da, eta beste tendentzia guztien aurrerapenean, duda barik, eragin handia dauka.

Kotxe elektrikoa bera azterterakoan hiru mota desbardin dagozala kontuan izatea beharrezkoa dogu. Arruntenak *hybrid* motatakoak dira, gaur egun prezio nahiko lehiakorrean saltzean diranak. Gure artean duda barik ezagunenak, urietan kutsadurea murriztuteko arauak beteten ditue



JATSU INTXAURBE

BATZ S. Koop.eko
Barrikuntzako Zuzendaria

emisinoen aldetik. Entxufe bakoak, barruan daukien teknologiak bateriak kudeatzen dabe zuzenean. Holan, gidaria ez da ezertaz arduratu behar.

Kontrara %100 auto elektrikoa dogu, entxufatzekoa, jakina! Izatez idea aurrendaria da, kotxeak sortu ziranetik pentsautakoa. Baina gaur egun, bateriak dirala eta ez dirala (beste baldintza tekniko eta politikoez gainera), kotxe elektriko mota honeei karga bategaz egin daiekguzan kilometro kopuru eskasak eta bere prezio altuak (arruntakaz konparauz) ez dabez herritarrek erakarriko urte batzuetan gitxienez.

Atzenik, hibrido entxufatzekoak, PHVE dalakoak doguz, merkaduan azaldutako atzenengoak. Honeek motor bi daukiez: elektriko eta arrunta. Lehenengoak entxufatzekoak izanik, kilometro batzuetan modu garbi eta merkean mobidutea ahalbidetzen deuskue. Eta urrunago joatea behar izatekotan, bigarrenak (gasolinazkoak) kotxe arrunt baten autonomia dauka. Teknikoki aurreratua da, bere konplejutasunak prezioan eragina dauka, eta hau dala eta, oindino ez dira asko ikusten gure errepideetan.

Dana dala, Arratia mailan gaur egun eta etorkizun baterako mobilidade barri bateri begira, teknologia gure esku izango dogula kontuan hartzeaz gainera, bako- txak egiten dogun kotxearen erabilerearen kulturea apurka-apurka aldatuz joatea ezinbestekoa dogula deritxat. Urteetan zehar luzatuko dan aldaketea da hau. Alde bate- tati, azpiegiturak ez dagozalako guztiz prest oindino. Eta bestetik, pisu handiko kotxeak baterien bitartez mobidutea ez dalako posible momentu honetan. Beraz, urtenbiderik onena oinez edo bizikletea, kotxea, autobusa eta tren- a modu bateratu eta koordinatu baten erabilera dogu. Autobusa eta trenaren arteko koordinazioa hobetutea beharrezkoa da, eta ahal dan neurrian kotxe elektrikoak entxufetako puntu batzuk Udalak ipiniko baleuz, guztion artean ja- sangarritasunaz betetako etorkizu- na izango dogu. Duda barik.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Laburtu behar izan ezker, begituk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Boronpil/Moropil



Sokak, hariak, ailubetak edo kordelakaz egindako lotura estu eta askatu ezinari esaten joko boronpil (borómpile, ahoskatuta). Batuan, korapilo da. Arratia inguruan hainbat aldaki desbardin jaso dogu berba hau adierazoteko: morapilo/morapillo, morokilo/morokillo, moronpil (Diman), moropil (Zeberion), moropilo/moropillo, poronpil (Zeanurin), torontil, goronpil, troiñu... Bada moropil bat atzera eta aurrera mobidu ahal dana: begitena (begiténa, ahoskatuta).

LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Kiniela politikoa

Hau idazten nagoan unean hiru egun falta dira Espainiako legebiltzarraren hauteskundeetarako. Hau irakurten dozuenean jada emaitzen barri izango dozue. Ordurako galdera nagusi bik erantzuna izango dabe: nork gobernauko dau Espainia hurrengo lau urteetan eta zenbat boto/aulki lortuko ditu Voxek. Hego Euskal Herriko erkidego bien etorkizunean eragin handia izan lekie kontu bi horreek. Ni, oin, hauteskundeen emaitzak datorren asteko etorkizunean kokaturik dagozala, kiniela politikoa egiten ausartuko naz.

Baina lehenik esan daidan zerbaist erabili dodan azterbi-deaz. Ez dot inkestetara ez argudio errazionala jo, nire uste tinkoa dalako horreek ez deuskuela egungo politikea ulertuteko balio. Inkesten arabera, zortzi miloe boto-emoile (hautesleriarren %41) dudan dagoz. Atera kontuak. Politikea inoz baino

polarizauago dagoan momentuan jentea inoz baino dudatsuago. Erabili daigun analogia bat polarizazio maila hobeto ulertuteko. Mahai gainean janari bi daukazuz eta bakarrik bietako bat jan daikezu: patata erdi gordin bat edo griselan erretako kiloko txuletea. Hauteslea: "ah, ba ez dakit, dudan nago". Hala da, *Spain is different*.

Nire azterbideak askoz joko gehiago emoten dau: zozketaz erantzun ditut goiko galdera biak. Fededun teista ez nizan arren, superstizino zalea naz, amorratua gainera. Lehen galderea alfabetoko letrak boltsa baten sartuz eta euretako bat ateraz erantzun dot. Letrak berbak osotuten ditue eta berbak ideak. "Z" atera jata. Zurullo? Zarrapastroso? Zombi? Zapatero? Bigarrena erantzuteko, aldiz, Otik 9ra arteko zenbakiak boltsa bardinean sartu eta zenbaki bi atera dodaz, astegoienean Athleticak Alavesari gol bi sartuko deusazalako. "1" eta "3" atera jataz, 13. Miloe bozka? Legebiltzarreko aulkiak? Bozken ehunekoak? Frankismoaren nostalgikoak merezi daben zenbakia?

ZERTZEAN



MADDI ZABALO

Gaia jarrita: "Itzulerak"

1

Milaka itzulera dauzkagu artean: lo dagoen ume bat berriz esnatzean, etxera iristea gauaren ostean, bihotza gorputzetik erbesteratzean eta berriz bertara bueltatzen denean.

2

Badatoz sentimendu eta pasioak, basotik emandako mila pasioak, aspaldi ezkutuan zeuden desioak, maitemintzeko era pozoindu, txiroak, joateko etorri ziren motiboak.

3

Faltan bota zenuten kanta isildura, oraindik notaren bat bertan geratu da, edota txikitako panpinen jokura sendatu nostalgia ta bihotz herstura itzuli zoriontsu zineten lekura.

4

Egia da, sarritan, da minaren hauspo itzulera berri bat, edo berri asko. Badatoz mamu zaharrak, baina zertarako, aspaldi ez badira izan honen gaizto? Bihotza sorterrira itzultzen delako.

5

Beldurra edo lotsa dakar hasieran, zaharren irteeran, berrien sarreran. Baina ez dago ezer txarra itzulera, batzutan betikotik behar dugu edan, euria errekarra itzultzen den eran.

6

Saltoa ere ez da egin behar atzera, hartu galdu gintuen bidezidor bera, zabala da bide ta kaleen aukera, ta bidean aurkitu ohi dugu norbera erreka ere beti baitoa aurrera.

BEGI TXINDORRA

Ahutzak beti mendira egiten dauala eta Maitane Izak igaz BEGIRUKO Oporretako Argazki Lehiaketara bialdutako argazki hau errekupeau gura izan dogu. Geuk be holan egiten dogulako.

Ahutzak dana jaten daben famea daukie eta inguru latzenetan biziteko gauza dira. Apenas bedarrik ez dagoan lekuetan, mendirik aldapatsuenetan, arbolik ez dagoan leku hotz edo eguzkiak erruki barik jotzen dauan horreetan. Erronka handiai aurre eginda, bizia temoso dala erakusten deusku, irauteko bokazinoa daukala.

Oingo sasoiaren erronka handiai egin behar deutsegu aurre: klima aldaketea, prekariedadea, eskoi muturraren gorakadea, indarkeria matxistea, Giza Eskubideen urraketak... inguru latza benetan. Ahutzaren moduan mendira egin beharko dogu indarrak hartzeako. Gero, etxerako bueltan temoso jarduteko biziaren alde.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarroga
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39
Kalegora Zerbete 100
R.P.S. 21/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Titnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Lehendakari Agor 22
ETROITZ
Agortzen geroak osatzen.

ARRATIA

Indarkeria sexista prebeniduteko tailerrak egingo dabez Arratia Institutuan

Maiatzean zehar izango dira eskola orduetan.

Neskak, *Autodefensa feminista* ikastaroa izango dabe eta mutilak *Klown desboteretzailea*.

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasan Arloak, Arratia Institutua-gaz batera antolatu ditu ikastarook.

AUMko Bardintasan Zerbitzuak urteak daroaz gazteak hausnarketa eta eztabaida prozesuak bultzatzen, kultura matxistea eta indarkeria sexistaren adierazpenak amaitutako. Horretarako, gazteen heziketa ezinbestekoa da eta tailerrok eskola orduetan jasoko dabez Batxillergoko lehenengo mailako gazteak.

Ikastaroen helburu nagusia, "bere adierazpide guztietan, andrakanako indarkeriari aurre egitea da. Batez be, neska gazteak sufriduten daben indarkeriari; eta, horretarako, neska horreei behar diran tresnak eta baliabideak emotea" azaldu deutso BEGITU Oi hane Zulet AUMko Bardintasan Teknikariak.

Baina, neskai tresnak emotea garrantzitsua bada da, mutilak indarkeria sexistarik ez erabilteko hezitzea oindino beharrezkoagoa da. Izan be, indarkeria matxistea amaituko da gizonak indarkeria matxistik erabilten ez dabenean. Horren gaine-

ko hausnarketea bultzatzea dauka helburu mutilai zuzendutako *Klown desboteretzaile* tailerrak. Tailerlean, "Klown diziplinan sarrera bat egin ostean, hainbat dinamikaren bitartez talde hausnarketea egingo da 'luma heterosexualaz', batzar mistoetan parte-hartzeaz, goizaldean kaletik lasai paseau ahal izateaz eta espazioaren okupazioaz". Helburua jakera sexistai aurre egiteko neurriak lantzea, eta akuilu emotea eraso sexisten aurrean mutilak zeregin aktiboa izan dagien.

Maiatzaren 3an, antzerkia

Bestalde, maiatzak 17 LGTBIfobiaren kontrako Egunaren harira, aurten AUMk bat egingo dau "Antzerkia harrotasunez blai" programe-agaz. Ortzadar alkarteak abiatutako ekimen honek, arte eszenikoen bidez, aniztasun afektiboa, genero identitatea eta familia ereduak landuten ditu.

Holan, maiatzaren 3an, Igorreko Kultur Etxean, *Kafka* antzezlan eskainiko da JB Eguzkitza Meabe Lemoako Ikastetxe Publikoko DBHko 2. mailako eta Arratia Institutuko DBHko 3. eta 4. mailako ikasleentzat.

ARRATIA

Espainiako Kongresurako EAJ-PNVk jaso ebazan boto gehien gurean

Aprilaren 28ko hauteskundeetan, Arratia, Ubide eta Zeberion, EAJ-PNVk izan ebazan boto gehien, 4.021 boto hain zuzen be, emondako botoen %44. Bigarren indarra EH Bildu izan zan, 2.918 botogaz (%32).

Erredakzioa

Hamar herrietako gure eremuan, 11.498 herritar egozan botoa emotera deituta eta 9.115ek emon eben.

Areatzan, Artean, Bedian, Igorren, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion EAJ-PNV izan zan lehenengo indarra; Arantzazun, Diman eta Ubiden barriz, EH Bildu lortu ebazan botorik gehien. Elkarrekin Podemos eta PSE-EE izan dira hirugarren eta laugarren hurrengo hurrengo. Elkarrekin Podemosek 971 boto lortu ditu, %10,6 eta PSE-EEK 597 (%6,5).

Bizkaian be, gure eskualdean legez, EAJ-PNV izan zan boto gehien jaso eban partidua, bigarrena PSE-EE izan zan; hirugarrena Elkarrekin Podemos, eta EH Bildu laugarrena.

EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EEK gora egin dabe

Arratia, Ubide eta Zeberion, Bizkaian orokorrean gertatu dan legez, 2016an baino boto gehiago jaso dabez EAJ-PNVk eta PSE-EEK eta behera egin dabe Elkarrekin Podemosek eta PPK. EH Bildu be gora egin dau, 2016an baino 473 boto gehiago lortuz.

Boto gehien galdu dituan partidua Elkarrekin Podemos izan da. Izan be, 2016ko hauteskundeetan 1.681 boto jaso ebazan eta aurtan 971; beraz, 710 boto gitxiago.

PPk be galera handia izan dau, 284 bototik 166ra pasauz. Hemen be, beste lekuetan gertatu dan moduan, eragina izango eban seguruenik eskoiazen zatiketeak. PPK 118 boto galdu ditu, baina Vox eskoi muturreko partidu bariak 77 boto jaso ditu gurean, eta

Ciudadanosek apur bat gora egin eta 71 botorra heldu da.

Pacmak 59 boto jaso ditu apurleko hauteskundeetan.

Josune Gorospe eta Aitor Esteban Kongresura

Bizkaiko EAJ-PNVko hiru diputadu egongo dira Espainiako Kongresuan, PSE-EEKo bi, Elkarrekin Podemoseko beste bi eta EH Bilduko bat.

Bizkaiko zortzi diputaduen artean, EAJ-PNVko Josune Gorospe Elezkano dimoztarra dago. Gorospe Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea izan zan 2011 eta 2015 bitartean eta Dimako zinegotzia be izan da.

Barriro be diputadu izango da Aitor Esteban Bravo, oin arte Kongresuan jeltzaleen bozeroalea izan dana. Esteban Zeberion bizi da.

	Errolda	Abstentzioa	EAJ-PNV		EH Bildu		Elkarrekin Podemos		PSE-EE		PP	
			2019	2016	2019	2016	2019	2016	2019	2016	2019	2016
Arantzazu	309	%14,24	101	94	111	90	34	47	15	2	1	1
Areatza	888	%18,92	296	244	242	214	80	112	53	18	27	36
Artea	580	%15	225	198	184	138	41	83	22	13	12	17
Bedia	869	%22,21	355	306	124	86	88	132	59	31	18	37
Dima	1.139	%19,23	362	294	412	352	88	153	22	6	6	10
Igorre	3.125	%22,98	1097	829	785	593	227	443	161	91	42	72
Lemoa	2.596	%22,07	805	642	585	500	260	446	218	116	47	81
Ubide	133	%25,56	23	27	54	51	10	18	4	2	1	3
Zeanuri	999	%18,62	418	365	281	230	71	127	19	2	8	12
Zeberio	860	%19,3	339	290	240	191	72	120	24	8	4	15
Guztira	11.498	%19,81	4.021	3.289	2.918	2.445	971	1.681	597	289	166	284

ZEANURI

Sanisidroko azokea maiatzaren 11n izango da

Egun bitan ospatuko dabe zeanurizarrak San

Isidro. Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen

Azokea hilaren 11n, zapatuan, izango da. San Isidro

egunean, idi probak egongo dira.

Erredakzioa

Urte askoan ganadu azokea San Isidro egunean bertan egin izan bada be, igaz zapatura pasetea ebatzi eben eta aurtan be gauza bera egingo dabe. Aurtengoa 38. edizioa da.

Azokea 10:00etan hasiko da. Ganaduen artean behiak izaten dabe protagonismoa, baina ardiak eta behorrak be egongo dira ikusgai. 12:30ean, abererik ederrenentzako sariak bananduko dira plazan.

Baserriko produkturik gozoenak

be salgai egongo dira.

Azoka bitartean, erakustaldiak eta tailerrak egongo dira. Holan, gaztaia eta arpana egiten erakutsiko da, zeramika tailerra egongo da eta artxo txuleta eta sagardao dastaketea.

Goiz guztian zehar herriko txistulariak eta trikitilariak musikaz girtuko dabe plazea eta inguruak.

Arrastian herri kirolak

Arrastiko seiretan idi proba erakustaldia egongo da eta 19:30etik aurrera, Aitzol Atutxak eta Julen Larreak azkoran egin-

go dabe. Inhar Urruzunok harria jasoko dau.

Egunari amaiera emoteko, 23:00etan, erromeria egongo da Tximeleta taldeagaz.

San Isidro Eguna

Maiatzaren 15ean be ospatuko

dabe San Isidro Eguna. Goizeko 11:30ean, mezea egongo da San Isidro ermitan. Umeentzako puzgarriak egongo dira eta 12:30etik aurrera, trikitilariak plazan eta tabernetan.

Arrastiko 17:30ean, idi proben erakustaldia egongo da.



IGORRE

Lanbide Heziketaren gaineko jardunaldia Arratia Institutuan

Erredakzioa

Errota Fundazioak, Eusko Jaurlaritzak, Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegiak, Arratiako BHI eta Lemoako IPIk, 6. mailatik gorako ikasleen gurasoai zuzenduta, maiatzaren 9rako Lanbide Heziketaren gaineko jardunaldi bat antolatu dabe, *Bidean: Lanbide Heziketa* izenpean. Arratia Institutuko aretoan izango da, arrastiko 18:30ean.

Rikar Lamadrid Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, ezagutzaren gizar-tean Lanbide Heziketaren behar harriztan egingo dau berba eta Lanbide Heziketaren 5. Planaren ildoak azalduko dauz. Zulaibar Lanbide Ikastegiko Laura Corba-

chok barriz, Lanbide Heziketara dagozan sarbideak zeintzuk diran azalduko ditu.



ZEBERIO

Untzuetan mendira igoera Nafar gazteluaren aztarnak ezetuteko

Erredakzioa

Untzuetan Nafar Gazteluak Untzuetan mendira ibilaldia antolatu dau maiatzaren 4rako. Bertan hamaiketako egin eta ekitaldia egingo dabe. Ondoren, Ugaon, gura dauanarentzat herri bazkarian parte hartzeako aukerea egongo da. Aurten, Ugaotik abiatuko da igoera, Zelai tabernatik 09:00etan.

Zeberio, Ugao, Arrankudiaga-Zollo, Arakaldo, Orozko eta Laudioiko alkarte honek, 2014tik, maiatzaren 4aren inguruan, Untzuetan mendiaren tontorrean batzean da. "Asmoen artean isilpean dagoan gure memoria his-

torikoaren berreskurapena dago, baita gure ondare historikoa ba-



lorean jartzea eta honen bitartez gure lurraldetasuna finkatzea. Horretarako adibidez, urteetan zehar berbaldi eta erakusketa desbardinak antolatu doguz" azaldu deuto BEGURI Iñaki Aierdi Untzuetan Nafar Gazteluako kideak.

Nafar Gaztelua Bizkaian

Untzuetan mendiaren tontorrean, gaztelu baten aztarna arkeologikoak dagoz. XI. mendean Bizkaiko Jaureria Iruñeako Erresumaren zati bat izan zan eta ordukoa da gaztelua, Nafarroako Erreinuaren defentsa sistema baten parte. Untzuetan mendiko gazteluak Nafarroako Erreinuaren inguru hau defendidu eban.

DIMA

Josu Gorospe izango da EAJ-PNVren alkategaia

Erredakzioa

Josu Gorospe Lapatza izango da Dimako EAJ-PNVren alkategaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeak begira. Jaiotzez lemoztarra, 38 urte ditu eta bizitza erdia daroa Diman. Zinegotzia da aurreko legegaldi erditik eta "motibata eta gogotsu" dago errokeari heltzeako, hautagaitza onartu ondoren.

"Oso gustura" sentitzen da Dimako auzuneetako ordezkariak. Auzuneai emon gura deutse arreta. "Bertan behera itxita dagoz eta beharizan handia dago" dino. Herrigunean gune estali bat egin gura dau eskolen ondoko kirolgunean. "Askotariko erabilerak emongo deutseguz instalazio horreei". Gorosperen helburua be bada herritarren arteko alkarbizitza hobetzea, bere ustez, "banaketa ideologikoa" dagoalako.

Josu Gorospe ingeniari teknikoa da eta mekanikan espezializata dago. Hamar urte daroaz Arratiako Zulaibar Lanbide Heziketa Ikastegian irakasle lanetan, Mekanizazio-tailerra, Tailerrera aplikatutako teknologia eta Marrazketa teknikoa irakasten. Ezkondua da eta alaba baten eta seme baten aita da.

ZEBERIO

Laxia Olagorta izango da EH Bilduren alkategaia

Erredakzioa

Zeberioko EH Bilduk etorkizunaren aldeko apustua egin guran, belaualdi gazteago baten esku ipintea aurrera egiteko ardura ebatzi eban maiatzeko udal hauteskundeak prestatzeko egindako barruko prozesuan. Hori dala-eta, Laxia Olagorta Gomez izango da zerrendaburu. Olagorta Zuzenbidean lizentziatua da eta Uriondo auzunean bizi da.

Hautagaia aukeratzeko, herrian eguneroko bizitza egiten dauan hainbat gurasorengana jo eban

EH Bilduk, "sano harrera ona" euki eban ekimen zerrendea osotuteko modu honek. Prozesu horren ondorioz osotu eban udal hauteskundeetako hautagaien zerrendea, eta alkategai modura Laxia Olagorta Gomez aurkeztuko dabe. "Laxiak ederto islatzen dau helburu barri hori: Zeberio kanpotik etorria, gure auzoetako baten bizi da, Uriondon, eta bizitza proiektu argia erakusten dau etorkizunera begira. Horrez gainera, prestakuntza guztiz egokia dauka holango zereginetarako, zuzenbidean lizentziatua da eta".

ARTEA

Igor Etxaniz izango da EH Bilduren alkategaia

Erredakzioa

Arteako EH Bilduk, Artea "alaia, ezkertiarra, feminista eta solidario baten alde behar egiten jarraitu" guran, Igor Etxaniz Urrutia, oingo alkatea aukeratu dau maiatzeko hauteskundeetarako zerrendaburu.

Igor Etxaniz, Santzurtzin jaio zan eta Artean hazi eta bizi da. Goi mailako kultur teknikaria da eta Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegian mantenimentu arduradun beharrak egiten ditu. 2015etik da Arteko alkatea eta "herria herritarraz hobetuteko konpromisoa" hartu eban karguagaz batera. Lau urte honeetan Artea biziagoa eta irekiagoa izateko egindako lanaz pozik dagoz bera eta bere taldea.

Aurrera egiteko bardintasun plana egin gura dabe datozen urteetan ze norabide hartu jakiteko. "EH Bildun argi dogu formakuntzea oso garrantzitsua dala", eta horretarako, "Udal langileak zein politikoiak bardintasunean formakuntzea erraztu, Arteko gizonai maskulinitatearen inguruko formakuntzea eskaini, Arratiako Jabekuntza Eskolea babestu eta finantziatu, eta Andran Gela espazio irekia eta plurala" indartuten jarraitutea daukie euren programan. Nazinogintza eta justizia sozialean be indar egin gura dabe.

AREATZA

Damian Agirremota izango da EAJ-PNVren alkategaia

Erredakzioa

Damian Agirremota Pujana izango da Areatzako EAJ-PNVk udal hauteskundeetan aurkeztuko dauan zerrendaburu. Agirremota, 2007-2011 bitartean Udala Gobernuako kide izan zan, aurrekontuen arduraduna eta Areatzako ordezkari Arratiako Udalen Mankomunitatean. Gaur egungo legegaldian zinegotzia da eta "lehen eskutik ezetuten ditu udal kudeaketaren gabeziak".

Hautagai jeltzalearen ustez, "gehiago inbertidu behar da kaleen

garbiketan, lorategietan, bideetan...". Garraio publikoa hobetutea eta herriko merkataritza sustatzea be badira bere helburuetako bi. Bere lantaldea esperientziadun personak eta arpegi barriak osotuten dabe.

Agirremota oin dala 59 urte jaio zan Bilbon eta hango Udalean lan egin dau hiru hamarkadatan. Oin dala 15 urte amaren jaioterria, Areatzara, etori zan biziten eta "bertako bizitza sozialean integrau da". Xake Bizi Areatza Kirol Kluba bultzatu dau eta monitore lanaz aparte, lehiaketak antolatzen ditu. Ezkondua da eta alaba bikiak ditu.

LEMOA

Arantxe auzuneko jaiak

Erredakzioa

Herri eta auzuneetako jaietan lehiaketa gastronomikoak ezin dira faltatu, eta Lemoako Arantxe auzunean mundu guztiak hainbeste maite dauan patata tortilleak izango dau protagonismoa. Gaueko musikeak jantza egiteko aukerea emongo deutse Arantxera hurreratutakoai.

Maiatzaren 4an ospatuko dira auzuneko jaiak. Txupina goizeko 11:30ean botako dabe eta ondoren, iturrirako ibilbidetara ekingo deusie. Bazkari herrikoa eta bazkalostean, 16:30ean Briska



Txapelketea egongo da. Tortillak 20:00etan aurkeztu behar izango dira eta Auzo musika Dj-a ordu bete beranduago hasiko da. Egun osoan zehar umeentzako jolasak eta sorpresak be egongo dirala agindu dau Arantxeko Jai Batzordeak.

AREATZA/ZEBERIO

Santa Kurutze ermiten inguruko jaiak

Erredakzinoa

Areatzan Santikurutze eta Zeberion Santa Kurtze izenpeko ermiten inguruetan egun biko jaiak prestatu dabez. Zeberion, maiatzaren 3an elorri zuria bedeinkatzeko tradizioari eusteko barikuan eta zapatuan; Areatzan barriz zapatu-domekeak hartuko dau jaiak Karpon.

Barikuan, hilak 3, 19:00etan botako dabe txupina Zeberioko Santa Kurtzen. Gero Tortilla Lehiaketaren usain gozoa zabalduko da auzunean eta gauean parrilladea eta albokariak egongo dira. Hurrengo egunean, alkarregaz bazkaldutako batuko dira auzokoak eta bazkalostean jarraituko dau jaiak gauera arte.

Areatzako Ganadu Azokea

Izenpe bereko jaiak zapatu-domekan ospatuko ditue Areatzan. Zapatuan, hilak 4, 12:00etan, mezea eta barauskarria egongo da Karpon, arrastian, herri kirol desafioa Goikokalean. Hurrengo egunean, Areatzak bere alderik baserritarrena adierazoko dau V. Ganadu eta Artisau Azokan.

Zeberio

Maiatzak 3, barikua

12:00etan, mezea, erramu ohi-
tura, ondoren kopautxo girotua.
19:00etan, txupinazoa.

20:30ean, tortillen aurkezpena.

21:00etan, sari banaketea;
gauez, parrilladea eta albokariak.

Maiatzak 4, zapatua

15:00etan, norberak etxetik
dakarrenagaz bazkaria; ondoren,
bertsolariak.

18:00etan, jolasak ume eta hel-
duentzat.

19:30ean, txokolatea.

20:00etan, Etxebarria aita-
seme trikitilariak.

22:00etan, kontzertuak.

Areatza

Maiatzak 4, zapatua

12:00etan, mezea eta barauska-
rria Karpon.

13:00etan, Bandearen kontzertua.

14:00etan, Gisadu eta Paella Le-
hiaketan aurkezpena.

14:30ean, bazkari herrikoia.

18:30ean, herri kirol desafioa
Goikokalen.

19:30ean, EinGO Kantan eta
Dantzaren taldeagaz poteoa.

Maiatzak 5, domekea

10:30ean, V. Ganadu eta Artisau
Azokea.

11:00etan, Bizkaiko eskolarteko
finalerdiak: Paleta Goma Area-
tzako neskak, alebinak eta infan-
tilak.

12:30ean, baskulearen apustua.

13:30ean, azokearen amaiera
eta zozketea.



ARRATIA

Andren Jabekuntza Eskoleak izena bilatzeko prozesua abiatu dau

Erredakzinoa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea hazten doa eta eskolearen nortasuna indartu guran, izen barri baten bila dabilz. Hori dala eta, prozesu parte hartzaile bat zabaldu da, Arratiako andrak euren proposamenak bota dagiezan. Ebatzia, eragile feminista desbardinez, norbanakoez eta AUMko Bardintasun teknikariagaz osotutako talde batek hartuko dau. Proposamenak, berdintasuna2@bizkaia.org helbidera edo 688 627 393 WhatsAppera bialdu behar dira.

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen hirugarren ikasturtea da oingoa eta eskolea handitzen doa. "Gero eta jente gehiagok emoten dau izena. Eskolea hasi zan egun biko eta hiru eguneko tailerrakaz eta aurten hilabeteko edo hile biko tailer pare bat izan dogu. Eta gura dogu eskolea eta proiektua formalizatu eta markoa indartu" azaldu deutso BEGITURI Oihane Zulet Bardintasun teknikariak. Hori dala eta, markoa definitu eta formalizatu dauan taldea sortzeako prozesu bat abiatuko da, andra taldeakaz eta norbanakoakaz.

Prozesu horren lehenengo pausua eskolari izena ipintea izango da, baina ez bakarra. Logo barri bat be sortuko da, eskolea identifiketan lagunduko dauana. Prozesu honetan, Torontilekoak parte hartuko dabe, nortasuna ordezkatzan dauan material grafikoak sortzeako.

Maiatzaren 11n, Jabekuntza Eskolearen 2018-2019 ikasturtearen ebaluazioa egingo dabe Arratiako andrak edo-eta ikasturtean parte hartu dabena. Ikasturtean izandakoak baloreteaz gainera, hurrengo ikasturterako proposamenak egingo dira.

ZEANURI

Pandero erronkea antolatu dabe Zeanuriko Dantzari Egunean

Erredakzinoa

Arrikibar Dantza Elkartek antolatuta, maiatzaren 4an eguerdiko 12:00etan, gitxienez 100 pandero jole batzea gura dabez *Oh bella ciao* kantua jotzen. Aurtengo Dantzari Eguneko talde konbidatua Burelatik (Lugo) etorriko da.

Galizatik etorritako taldeaz gainera, Usansolo, Bedia, Lemoa, Igorre, Dima eta Zeanuriko jantza taldeak egongo dira, 250 eta 300 jantzari artean batuko dira.

Jai giroak egun osoa hartuko dau. Izan be, goizeko 11:00etan alkartuko dira jantzariak eta 20:00etan izango da atzen ekitaldia, trikitixea, gaitea eta panderoaren musikeagaz. Jantzariak plazan batu ondoren, kalejireia egingo dabe eskolaraino, eta 12:00etan eskolan jantza ekitaldia eta 100 Baietz! Pandero Erronkea hasiko dira. Ondoren bazkaria eta arrastian, erromeria Bilboko Musika Eskolako Fanfarriagaz, 20:00etan, trikitixea, gaitea eta panderoen soinuakaz amaituko da eguna.

Panderoari bultzadea

Arrikibar Dantza Elkartean helburuen artean, bertoko musikea eta tresnak indartutea dago. Gainera, "Galizan jantzan egon ginanean konturatu ginan euren tzako panderoa oinarritzko musika tresnea dala. Panderoagaz bakarrik kantau eta jantzan egiteko gai dirala" azaldu deutso BEGITURI Edorta Alonso Arrikibar jantza taldekoak.

Horregaitik, Arratia eta Galiza batzean dituan tresna honeri espazio bat emon gura izan deusie. Baita panderoa joteari bultzadea emon be.

DIMA

Txahala zozketatuko dabe Dimako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eskulangintza Azokan

Erredakzinoa

Maiatzaren 12an, Udalak eta abeltzainen alkarrean antolatuta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eskulangintza Azokea egongo da Diman 11:00etatik 14:00etara. Herriko tabernetan, moxal pinxoak dastatu ahal izango dira eta 12:00etan, abeltzaintza alkarrean txahala zozketatuko dau.

Dimako 20 abeltzainek erakutsiko dabez ardiak, ahuntzak, behiak, behorak, zaldia eta moxalak, frontoi nagusiko aparkalekuan. Frontoian, eskulangintza azokeak, 20 erakusmahai inguru batuko ditu. Eta baserriko produktuak jagoiengan ez dira faltatuko gozoak, ogia, taloa, sagardua, ardua, gaztaia, gildak, orioa eta mermeladea, beste jateko batzuen artean.

Hiru azoka baten

Hamahiru urte beteko dira aurten aberezinak ganadu eta baserriko produktuen azokea antolatuten dabena. Eskulangintza azokea San Pedro jaietan egiten zan lehen, baina oin 10 urte udabarria pasau eben Nekazaritza eta Abeltzaintza azokeagaz batera egiteko. Atzen urte bietan Dantzari Txiki Eguna be batera egin izan da; aurten, osteraz bezperan izango da Dantzari Txiki Eguna, zapatuan, eta azokea domekan.



JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

BERRIZTU

Eduardo Cabrera: "Nerabeak dira, beste barik"

Areatzako moja-komentua izandakoan, hainbat nerabe dagoz heziketa, laneratze eta gizarteratze prozesu baten barruan, gurasoenganako indarkeriagaitik epaile batek holan aginduta. Zentroa Berritzuk kudeatuten dau. Berritzu irabazi asmo bako erakundea da, 1991n hasi zana hego Euskal Herrian egoan lehenengo Gazte-justizia zentroa kudeatuten.

Eduardo Cabrera Berritzuko pedagogo eta Gazte-justizia arduradunagaz egon da BEGITU.

Erredakzioa

Nortzuk zagoze Berritzun?

Momentu honetan 320 profesional gagoz, gehienak Hezkuntza alorrekoak: psikologoak, pedagogoak, gizarte hezitzaileak, gizarte langileak, abogaduren bat... baina baita medikuak eta erizainak be. Gehienak hezkuntza alorreko profesionalak.

Lehenengo zentroa, oin dala 28 urte sortu genduan, 14 eta 18 urte bitartekoentzat izan zan Ortuellan. Hortik aurrera, laguntza alternatibak zabaltzen joan gara. Gazte-justizia, Genero Indarkeriaren biktima diran andrantzako zerbitzu integrala, Gurasoen aurkako indarkeriari aurre egiteko familia alorreko esku hartze programak, Laneratzea eta gizarteratzea, eta abar.

Zer dala-eta zagoze Areatzan?

Areatzan egoteko aukerea komentuarak emon euskun baldintza onak ditualako: eraikin handia da, eta edozein alternatiba egiteko posibilitadeak ditu. Hasikera baten, zertarako erabili oso ondo jakin barik hartu genduan. Eroste-ko aukerea emoten dauan alokairuan, hain zuzen. Mojak gure alde egin eben, atzean egoan erakundea gustetan jakien eta. Erabile-arako aukerak ikusten ibili ginan eta atzenez, Eusko Jaurlaritzagaz, gurasoenganako indarkeria erabili dabenentzako zentroa sortzeako ideak egin eban aurrera.

Komentuak mojena izaten jarraituten eban?

Bai. Oingo hilean (martia) edo datorrenean sinatuko dogu salmentea. Alokairuan urte bi egon gara. Guri asko gustetan jakun lekua, hemen hezkuntza alternatiba bat egiteko, baina ez geunkan nogaz. Ez geunkan erakunde pu-



Eduardo Cabrera.

blikorik atzean.

Urte bi honeetan egon gara leku honetan interesauta egon eitekean erakunde publiko baten bila. 2018ko zezeil edo martian ikusi genduan zentro espezifiko baten premia eta kontaktuetan hasi ginan. Abenduan sinatu genduan hitzarmena.

Areatzan gurasoen kontrako indarkeria erabili dabenentzako zentro bat egitea zuen-

gandik sortu zan ala Eusko Jaurlaritzatik?

Batera. Egia esan, Gazte-justizia arloko zerbitzu gehiago daukaguz. Orduan, Jaurlaritzako teknikariak beharrean gengozanean, pentsau genduan gurasoenganako indarkeriaren errealidadea, beste arazo batzuen errealidadeagaz ez bateratzea komenidu zala. Gazte honeek daukien arazo gehienak etxean izaten ditue.

Kanpoan ez dira hain problematikoak izaten eta hobe da beste batzuetatik aparte eukitea. Alde batetik, laguntza lana konzentretarren, espezifikoago egitearren, eta bestetik, ez dagiezan kutsatu beste batzuen arazoakaz.

Zenbat urte ditue zentro honetan dagozan gazteak?

Sartzean diranean, 14 eta 18 urte bitartean izaten ditue, horixe dalako adin txikiko lege penalaren edadea. Gero, ezarritako neurrien arabera, 19 urte artekoak be egon daitezke. Baina orokorrean, 14 eta 18 urte artean eukiten dabez.

Hona etorten diranak beraz, epaile batek emondako agindua beteten etorten dira.

Bai, askatasunaz gabetzeko zigorra daukie. Edo, talde hezitzaile baten alkarbizitza egitea be izan daiteke epailearen agindua. Atzen hau ez da askatasunaz gabetzeko neurria, baina bai etetik urteteko agindua.

Bizkaian badago gurasoen kontrako indarkeria erabili daben gazteentzako zentro bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren menpe dagoana, Hobetzen izeneko. Hau be geuk kudeatzen dogu. Zentro honetan dagozan gazteak etxean biziten jarraituten dabe baina heziketa lana eta lan terapeutikoa zentroan egiten dabe. Zentro horretara, gazteak, euren familiak eta hezitzaileak joaten dira lan egitera.

Normalean, gurasoenganako indarkeria egoera gehienak holan konpontzen dira, euren inguruan esku-hartze hezitzaile bategaz. Baina batzuetan ez da nahikoa izaten. Batzuetan gaztea etetik atera behar da eta orduan, epaileak holan ebazten badau, zentro honetara etorri daiteke.

Berritzuk hartzean dau ardurua hori, ezta?

Bai. Eusko Jaurlaritzagaz hitzarmen bat sinatuta daukagu. Jaurlaritzak, dirua emoten dau urtean zentroaren diseinua egin eta langile kopuru bat kudeatzeko. Guk aurkeztu genduan proiektua eta kudeaketea mistoa da. Kudeaketa eredu mistoa asko erabilten da Euskal Herrian: erakunde pribaduak proiektua egin eta aurrera ateraten dau, eta erakunde publikoak ikuskatu eta zentroaren segmentua egiten dau.

Zentroan hiru lan mota dagoz. Alde batetik, lan sozio-hezitzailea dago; hau da, gizarte trebetasunakaz, bulkaden kontrolagaz, balioakaz... lotutako lanak. Gero, alde terapeutikoa dago. Familia terapeuta batek, gazteagaz, gazte taldeagaz eta familiagaz lan egiten dau. Eta hirugarren arloa, heziketea da. Areatzan sukaldaritza tailerra daukagu. Gazteak, irakasleagaz euren bazkaria eta afaria egiten dabe eta, bide batez Oinarrizko Lanbide Hezike-

tako ikastaro bat be egiten dabe. Beste OLHko ikastaro bat be badaukagu, eraikuntzen mantenimentuen gainekoa.

Normalean, heziketeari jagokonean, gazteren batek aurrera egin edo kapazidade handiagoa badauka, kanpoko baliabideak be erabilten dira. Esate baterako, Batxilergoko lehenengo maila egiten dabilen mutil bat daukagu. Bera ondo egon bezain laster, bere institutura bueltauko da. Heziketea mantenidu egin behar da, ezin da prozesua eten.

Mutilak dira danak?

Oin dagozanak bai, baina zentroa neskak hartzeako be prestatuta dago. Oin dagozan seirak mutilak dira.

Zeintzuk dira Berritzuren ezaugarriak?

Berritzuk esperientzia handia dauka laguntza alternatibak sortzean. Urte asko daroaguz alternatiba asko eta oso desbardinak sortzean, populazino mota askotarako. Gazte-justizia zerbitzuak 28 urte beteko ditu laster. Proiektu asko egin doguz. Eta gurasoenganako biolentziari jagokonean, Hobetzen zentroa daukagu arazo honeek tratetako. Hamar urte dira sortu genduala. Ikerketa asko egin doguz eta oso jente trebatua daukagu gazteak eta euren familiak artatzen.

Zein da gurasoenganako biolentziaren egoera Euskal Autonomiadun Erkidegoan?

Fiskaltzaren igazko datuen arabera %23 igon da. Errazoi bi dagoz. Bata da, jenteak konzientzia hartu dauala eta errazago eskatzen dau laguntzea eta hori oso ona da konpondu ahal izateko. Gero be badago beste gauza bat eta da, atzen finean nerabeak dirala. Nerabeen jokaera batzuen aurrean guraso batzuk lar bildurtuten dira. Nerabezaroa pasau beharreko sasoi bat da, autoridadea eta arauaren kontra daukan errebeldia guztiagaz. Eta familia egoera batzuetan, sortzean dan alarmagaitik, gehiago salatzen da.

Ete gero egia be bada toxikoen konsumoa bizkortu egiten dala nerabezaroan eta Euskal Herrian gurasook kontrolatan ez dakiguzan jarkera nahikotxo dagozala. Hori da errealidadea. Ez da alarma biztutekoa baina gurasoen kontrako indarkeria kasu asko dagoz. Jentea lehenbailehen konpontzen saiatzen da, eta hori ona da.

Normalean, behin nerabezaroa pasautakoan, konpondu egiten da indarkeria arazoa?

Bai. Gehienetan bai, eta lehengo be bai. Nerabeak autoridadea eta arauakaz daukan hartu-emona birkokatzen dauanean. Heldutasuna eta portaerak ikasi edo berrikasi egiten dabez. Alde

terapeutikoa be garrantzitsua da familia hartu-emonak konponduteko. Gehienetan, egoera normalizetako aukera asko dagoz. Esan daiteke Gazte-justiziakoak dirala pronostiko onena daukien delituak.

Dana dala, gora doala dinozu, gure bizimoduagaz zerikusia dauka?

Orokorrean, gurasoenganako biolentzia hartu-emon batzuen aurrean gazteak daukan erreakzioa izaten da. Esate baterako, izan leiteke permisibidade lar egon dalako, edo etxean genero indarkeria ikusi daualako... Errazoi asko egon daitezke. Baina egia da permisibidade handiko sasoi batetik gatozala eta danok be lar hartzean doguzala kontuan eskubideak eta lar gitxi eginbeharrak. Neska-mutilak zentrora datozanean, atoa galdetzen dabe ea zeintzuk diran euren eskubideak eta inork ez dau galdetzen ea zein dan bere eginbharra. Hemen betebeharrak batzuk ditue: ohea egin behar dabe, jatekoa...

Ikuspegi baikorra daukazu, ezta? Gazteai osoko urtenbidea eskaintzen jakiera uste dozu?

Bai. Nik uste dot gurasoenganako indarkeriagaz amaitzeko baliabideak ipinten dirala. Garrantzitsua da Hezkuntza Sistemeak funtzino batzuk hartzea bere gain prozesu honetan lagunduteko. Baita osasun sistemeak be. Nik uste dot konpondu daiteken arazoa dala. Gizartea konzienzia egin da, konponbideak ipini dira martxan eta nire ustez, denporearen podesuz, normalidadera bueltauko da dana.

Zuek beharrean hasi zinienean, oin dala 28 urte, panoramea oso bestelakoa zan?

Bai, jakina! Gurasoenganako biolentziarik ez egoan. Egozan delituak jente baztertuagoak egingakoak ziran. Ez dauka zerikusirik oingoagaz. Gizartea aldatuten doa eta ez dakigu 20 urte barru legearen kontrako ze arazo klase eukiko dabezan nerabeak. Gizartea bera eta gazteen arazoak aldatu egiten dira.

Badago beste arazo bat, toxikoen konsumoagaz lotutakoa, eztabaida handia sortu dauana. Toxikoen konsumoa arazo larria da nerabearoan. Ez gurasoenganako indarkeria egiten dabenen artean, beste populazino mota

baten baino. Izan be, batzuek ez daukie haxixa edo marihuanaren arriskuaren perzeptinorik. Oso normalizauta dago. "Nire semeak haxixa tabakoa balitz legez erretzen dau" dinoe gurasoak.

Gurasoak heroinaren sasoikoak dira eta horren aldean haxixa...

Baina ikerketak dinoe haxixak kalte handia egiten dauala, batez be oso gaztetan erre ezkerero. Eragozpen handiak sortzean ditu eta lar normalizauta dago. Nik uste dot droga kontuak, "desnormalizau" egin behar dirala.

Zer moduz Areatzan? Batzuek ez ei dabe oso ondo hartu zuek hona etorri izana.

Danetik egon da. Lehenegotik Udalar eskerrak emon gura deusat hasikera-hasikeratik babesa emon deuskulako. Baina egia da, okerreko informazioak be ibili dirala bolo-bolo. Horregaitik,

triptiko bat egin genduan jenteari erakusteko zer dan hau eta atea zabalik jardunaldi bat be egin genduan. Bertan Udal eta eskualdeko erakundeak egon ziran.

Herriari esan behar jako neska-mutil honeek euren edadeko beste edozein neska-mutilen modukoak dirala. Kaletik doazenean autobusa hartzean edo beste edozertan, ez dabela institutuko gazteak baino arazo gehiagorik sortuko. Esan gura dot akaso egunen baten farola bateri ostikada bat emongo deusiel, baina hori zentrori batek emon edo institutuko gazteak emon, bardin-bardina da. Gazte honeek kalera urtetan diranean, ezer ez gertatzeko aukera asko dagozalako da. Eta gertatzen bada, konpondu egingo da beste edozein nerabegaz egiten dogun lez. Nerabeak dira, beste barik, eta heziketa prozesu baten dagoz.

"Berriztuk esperientzia

handia dauka laguntza

alternatibak sortzean.

Urte asko daroaguz

alternatiba asko eta oso

desbardinak sortzean,

populazino mota

askotarako"



Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE


MATRIKULA
Epea: maiatzean
- ONLINE: www.arratiakomusikaeskola.eu

*** INFORMAZIOA:**
- Astelehen, asteazken eta ostiraletan
10:00etatik - 13:00 arte Tfnoa: 94 631 73 52
- Web orrian

*** 2 eta 3 urteko umeak, IGORREN zentralizatuta, matrikulatu ahal dira. Aita edo amarekin joan beharko dira klasera.**

- Matrikulazioa ONLINE:
www.arratiakomusikaeskola.eu
arratia.musikaeskola@gmail.com

TAEKWONDO

Andoni Cintado
Espainiako txapeldun

Andoni Cintado.

Erredakzioa

Espainiako txapelduna da Jon Andoni Cintado Artetxe 20 urteko zeberioztarra. Txapelketa Alacanten jokatu zuen martiaren 9an eta 74 kilo azpiko kategorian txapelduna izan zuen.

Gaztea izan arren ibilbide luzea dauka Cintadok taekwondoan. Sei urteagaz hasi zuen praktiketan eta 15 aldiz izan da Euskadiko txapelduna kadete, junior, 21 urte azpikoan eta maila absolutuan. Alacanten lortutako Espainiako Txapelketa maila absolutuan irabazi dau. Nazioarteko openetan be parte hartu izan dau Cintadok eta onenen artean sailkatu da. Poloniako Openean hirugarren sailkatu zuen kadete mailan, esate baterako. Oin, Espainiako txapeldunak, taekwondo eta unibersidadeko ikasketak batera egiten ditu; Industria Diseinu Ingeniari-tza ikasten dau Valentzian eta.

Valentzian ikasi eta entrenau

Arrigorriagan hasi zuen Cintado taekwondoan eta 12 urteagaz Basauriko The Masters klubera aldatu zuen. "Han egin neban nire ibilbidea DBH 1.tik Batxilergo 2.era arte. Gero itxi behar izan neban kanpora joan nintzalako ikasten" azaldu deutso BEGURI Zeberioakoak.

Valentzian, Deportivo Olimpo klubean dago, Paco Martin Torres entrenatzaileagaz. "Valentziara joan aurretik, Batxilergo bigarrenean klubagaz kontaktuan ipini nintzan. Aste pare bat entrenetan joan nintzan txapelketa bat neukalako. Entrenetako modua sano gustau jatan eta hango jenteagaz eta entrenadoreagaz oso hartu-emon ona egin neban. Beste kirol batzuetan ez bezala, taekwondoan entrenetako aurkaria behar dozu eta zeure pisukoa izatea komenidu da. Horregaitik da inportantea klub baten egoitea" dino Cintadok.

Goi mailako kirolari izatea eta unibersidadean ikastea gogorra dala dino. "Txapelketa bat daukadanean, kilo asko galdu behar izaten dodaz eta ea ezer jan barik egon behar izaten dot aste pare baten. Hori unibersidadeko azterketetan gertatzen bada sano gogorra izaten da".

Hurrengo erronkak

Espainiako Txapelketa lortuta, bere helburu nagusia bete dau Cintadok, baina badagoz beste bi ilusino handia egiten deutse-nak: Estaduko unibersidadean arteko txapelketa maiatzaren 4an Castellonen jokatu dana eta Udako Unibersidade Olinpiadak garagarriean Napolin.



FUTBOLA

Bigarren amaituko dau ligea Arratiak

Erredakzioa

Arratia andrazkoen taldeak 8-1 irabazi eban aprilaren 28an Aurrera Vitoria B taldearen kontra. Igorrekoak bigarren postuan amaituko dabe ligea, partidu bakarra falta danean lau puntura daukalako Tolosa liderra. Ligako atzen partidu atzen postuan dagoan Mariño taldearen kontra jokatu dau Arratiak etetik kanpo maiatzaren 4an 15:30ean.

Arratia gizezkoak

Arratiako gizezkoen A taldeak barriz 1-0 galdu eban Getxoren kontra aprilaren 27an etetik kanpo jokatu partiduan. 30 jardunaldi eta gero hamaseigarren postuan dago Arratia 24 puntugaz, jaitsiera postuetan ia-ia. Datorren partidu Sondikaren kontra jokatu dau Igorreko taldeak Urbietan hilaren 4an, arrastiko 17:30ean.

Arratia B taldeak osterana bana bardindu eban Basurtoren kontra jokatu atzen partiduan.



Arratiak Urbietan jokatu partidu bat.

30 jardunaldiren ostean Arratia bosgarren dago 51 puntugaz. Datorren partidu Ezkurdi B taldearen kontra jokatu dabe hilaren 5ean, 16:00etan.

LemoaHarrobi

LemoaHarrobik 1-0 galdu eban

Amorebieta B taldearen kontra jokatu partidu. Lemoakoak hamabigarren dagoz sailkapenean 39 puntugaz 30 jardunaldi eta gero. Datorren partidu Arlo-nagusian jokatu dau Lezama Sport taldearen kontra hilaren 5ean, 19:00etan.

MUSIKA, ARTEA, GARAGARROGA ETA JANARIAREN JAIALDIA

LEMOAKUSTIKFEST19

23:00 ERREKALDIA ATXEREA 24:30 ERREKALDIA ATXEREA

NØGEN DEAD BRONCO

18:30 ERREKALDIA ATXEREA

JON GURRUTXAGA & URBIL ARTOLA

18:00 JULEAS PLAZA 16:30 ARLO-INGURU PLAZA

JAMES ROOM MISSISSIPPI QUEEN DUO

14:15 ERREKALDIA ATXEREA 13:30 ERREKALDIA ATXEREA

EMPTY BARRELS LARREGI

12:45 ERREKALDIA ATXEREA 11:30 TIPORRUA GORRA

LORELEI GREEN BIRKIT

MAIATZAK 11

PELOTEA

Zeanuriko Joko Alaik eskupelotako Bizkaia Cup Txapelketea irabazi dau

Erredakzioa

Kadete A mailan izan zan. Eneko Artarazek eta Arkaitz Eskuzak jantzi eben txapela. Finala apirilaren 12an jokatu zan Galdakaon.

Partidua oso ondo hasi zan Zeanuriko bikotearentzat, 7-2ko emaitzeagaz, baina Galdakaoko bikotea ez zan kokildu eta aurretik ipini ziran. Gero, Zeanuriko Artaraz eta Eskuza 20-18 jarri ziran irabazten baina hiru huts egin eta gero, etxean jokatu eban bikoteak 21-20 irabazten jartzea lortu eban. Joko Alaikoak orduan

21-21 jarri ziran. Gero, Zeanuriko aurrelariak, Artarazek, sake on bat egin eban eta Galdakaoko atzelariak ezin izan eban eroan. Hori dala-eta, partidu estu baten ostean, Zeanurikoentzat izan zan txapela.



BOLA JOKOA

Bizkaiko Bola Joko Txapelketak maiatzeko lehenengo zapatu-domeketan izango dira

Erredakzioa

Bizkaiko Banakako Bola Joko Txapelketea, bolategi erara, maiatzaren 4 eta 5ean jokatu da Amorebieta-Etxanoko San Migel bolalekuan; eta Binakakoa, hurrengo astegienera leku berean. Euskadiko Txapelketea bagilaren 8an izango da Kexaan (Araba).

2019ko bola denporaldia martian hasi zan. Hiru txapelketa jokatu dira bertan: Komarkala, Bizkaiko Txapelketea eta Euskadiko

Txapelketea. Kormakalean Arratiako hiru taldek hartzean dabe parte: Artaun eta Oba (Dima) eta Lemoa. Txapelketea maiatzaren 25ean amaituko da. Zapatuetan jokatu da lauretatik aurrera.

Komarkala

Saio bi baino ez dira geratzen Komarkaleko botaldiak amaituteko. Hurrengo botaldia, maiatzaren 18an izango da Artaunen eta atzena, maiatzaren 25ean, San Migelen jokatu da.

IBILALDIA

Errotarik errota, naturea eta kulturea buztartuz Zeanurin

Maiatzaren 5ean izango da Zeanuriko Erroten XIV.

Ibilaldia.

Jon Urutxurtu

Maiatzaren 5erako prestatu dau Joko Alai Alkarteak 2019ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Aurten hamalagarren edizinoa beteko dau oinezko martxa honek eta antolatzaileak adierazoten dabenez helburuak hasikerako berberak dira: "alde batetik, herritarri zein kanpotik hurreratzen diran bisitariak Zeanuri eta bere auzoak ezetuten emotea; bestetik, Zeanuriren historian errota izan daben garrantzia ezetu arazotea eta atzenik, domeka goiza natureagaz hartu-emonetan eta kirola eginez pasetako aukerea eskaintzea". Ez dira gitxi, izan be, herri honetan ezetuten diran edota han-hemenka azaltzen diran errota edo erroten arrastoak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar bederatziren ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —Errotabarrin, Ibartuxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

Ibilbide bi prestatu dabez antolatzaileak, bata luzea, 18 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa 12 kilometrokoa, jan-edana bananduko dan lekutik helmugara zuzentzen dana.

Egurrezko bide barria

Urtekerea herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan; plazatik, udaletxearen aurretik, abiatuz eta Altziber eta Errotabari erroten on-

dotik. Hau 2015ean zaharbarritu eben Manterolatarrak eta sartu-urtena egin ahal izango da. Gero, Undurragako urtegiaren ertzetik egingo dabe aurrera ibiltariak, eta horretarako, aurten Bilbao Bizkaia Ur Partzuegoak diseinatu eta zabaldu dauan bidea jarraituko dabe. Aldi berean, bide barri horren inaugurazio ofiziala egingo da.

Urtegia atzean itxi bezain laster Barrengoerrota aurkituko dabe, Beretxikorta errekatxoaren ertzean. Agarre izeneko baserriaren ingu-

rutik aurrera eginaz, Undurraga auzunera jaitsiko dira Ibartuxiko errotarako bidea hartzeako; hemen, atek zabalik izango dira, eta gura dabenak kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Ibartuxitik Lanbreabeko errotera, eta hemendik barriro Undurragako urtegiaren ertzetik ekingo deusie bideari. Presatik 100 metro atxina, Alkiberren, indarrak barritzeko jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantábricak. Aurrerantzean, lehenengo Otzerimendi auzunetan eta gero Urriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurboko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik igaro ostean, atzen kilometroa beteten hasiko dira; helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko atzen errotea azalduko da, Olabarrakoa, Pujana familiak guztiz zaharbarritua, eta sartu-urtena egiteko aukerea izango da, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaierara emon aurretik.

IBILALDIARI BURUZKO ZEHETASUNAK

- * Izena emotea: 08:30etik aurrera, herriko plazan. 5 euro; 14 urtetik beherako umeak debalde. Urtekerea: 09:00etan.
- * Ibilbidea: 18 kilometro inguru; ibilbide laburra: 12 kilometro.
- * Jan-edana: Alkiberren jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantábricak.
- * Errotetan sartu-urtena: ibilaldiaren hasieran Errotabarriko erroten sartu-urtena egiteko aukerea izango da, zazpigarrenean Ibartuxikoan eta atzen kilometroan Olabarriko erroten.



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

KONTZERTUA

Ainhoa Uriak bere atzen konposizinoak aurkeztuko ditu Igorren**Erredakzioa**

Estreinaldia maiatzaren 4an izango da, 20:30ean, Igorreko Lasarte Aretoa. Han, Ainhoa Uriak musika sortzaile, pianojole, zuzendari eta musika irakasleak, bere atzen konposizinoak aurkeztuko dauz *Lur* izenpeko piano kontzertuan.

Estreinauko dituan piezez gainera, beste musika lan batzuk be eskainiko ditu, *Gree, Libera, Requiem, Eklipse, Jai, Forward, Blue* eta *Red*. Musikagilea Bilbon bizi da baina jatorriz Arantzazukoa da. Txikitan, Arratiako Koruko partaide izan zan eta atzenenengo urte bi honeetan abesbatzearen zuzendaria.

Piano irakaslea, Santurtziko Maitia Korala eta Arratiako Koruaren zuzendaria da.

Mundo clásico musika aldizka-

rian kolaborazinoak egiten ditu.

Ainhoa Uriak

Ainhoa Uriak, Piano eta Pedagogia Musikalako goi mailako ikasketak ditu; baita Musika Heziketako Diplomatura be. OLBEK antolatutako Kontzertu didaktikoetan eta Musika-musikan parte hartu dau. Kuraia Ensemble eta Ricercare Sinfonietagaz be egin dau lan. Athletic Animatu Lehiaketako lehenengo saria lortu eban eta Bilboko Koralko Elkarte partaidea da. Burdeos-Aquitaniako Orkestra Nazionalagaz, RTVEko Orkestra, Berlineko Orkestra Sinfonikoa eta Toulouse Orkestra du Capitoleagaz egin dau behar, Pavarottiren mailako abeslariakaz.

Oin, batez be piano lanak sortzeako eta kontzertuetan azalartzen diran emozinoak sakontzeko prozesuetan dago sartuta.



KONTZERTUA

Zelten musikea Highlanders taldeagaz Artean**Erredakzioa**

Maiatzaren 11n Arteako Kultur Etxean, Highlanders musika taldeak kontzertua eskainiko dau 21:00etan. Taldea 2014an sortu eben Borja Feal eta Edu Anderes musikariak, arku atlantikoko zelten

musikea joteko asmoz.

Borja Fealek txirula, piccolo, whistle, gaita eta okarina jotzen dauz eta Edu Anderesek gitara. Antonio Romerok bajua jotzen eta Luis Escaladak baterian osotuten dabe laukotea. Taldeak estilo nahasketea egiten dau, tradizioa eta abangoardia nahastuz eta errepertorioa joteko, musika tresna ugari erabilten ditue.

Highlanders-ek disko bi ditu kalean *Cruce de caminos* (2015) eta *Celtic Colours* (2016). Bigarren disko honetako *Luna* piezearen bideoklipa ikusgai dago Youtuben.

Olaxte
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gaitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

ANTZEZLANA

Umeentzako antzerki jantzagarrria Lasarte Aretoa**Erredakzioa**

Maiatzaren 11n, 17:30ean, Ene Kantak taldeak *Satorjator* umeentzako antzerki musikala ekarriko dau Lasarte Aretora.

Satorjator ikuskizunean Eneko eta Nerea personajeak biaje magiko barri baten murgilduko dira; oingo honetan, Lur planetaren bihotzera. Lur azpian aitatik emondako mapa bateri esker altxor magiko bat bilatuko dabe eta bertan lagun barriak eta aspal-



diko bat topauko dabe. Bildurrari eta hango abenturari aurre egingo deutsee abesten eta jantzan. Gainera telefono mobikorraz emoten dogun larregizko denporearen gaineko hausnarketea egingo dabe, gailu horreen fundamentuzko erabilera bultzatuz eta olgetako galtzean doguzan orduak kritikauz. Barretxo eta musikaz betetako antzerkia da.

Ene Kantak

Ene Kantak taldeko partaideak, kantu jantzagarrri, barri eta umeentzako egokiak sortzean dabez. Gehienetan, euskal munduko kirolari, musikari eta kultur arloan dagozan personaje ezagunakaz egiten eta kantetan dabez abestiok. Ruper Ordorika, Pirritx eta Porrotx, Fermin Muguruza, Kutxi Romero (Marea), Gorka Urbizu (Berri Txarrak), El Drogas, Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi) eta Manolo Garciagaz (El Último de la Fila), barbarako.

ERAKUSKETEAK

Frankensteinen figurearen gaineko erakusketea**Erredakzioa**

BBK Fundazioaren eskutik, Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoa, maiatzaren 10etik 28ra arte ikusi ahal izango da Santiago Ydanez artistak Frankenstein-en figureari buruz egindako erakusketea.

Santiago Ydanez (Jaen 1957) nazioartean izenik handiena daukanen estaduko artistetako bat da. Artisteak, 27 serigrafiaren bitartez, Mary Shelley idazle ingelesaren literatur lan ospetsuena-

ren ikuspegia erakutsiko dau.

Mary Shelley

Frankenstein edo Prometeo moderno Mary Shelleyren 1818ko nobelea, zientzia fikzioaren generoko lehen testutzat hartzean da. Nobeleak nobela gotikoaren tradizioari jarraitzen deutso eta beste batzuen artean, moral zientifikoa, bizitzaren sorkuntza eta suntsipena eta gizakiaren ausardia Jainkoagazko hartu-emonetan ditu berbagai.

Obraren azpituak, *Prometeo moderno*, Prometeoren mitoa izan zala inspirazio iturri nagusia erakusten dau.

Mary Shelley, Mary Wollstonecraft zan ezkondu aurretik. Izan be, 1791n idatzi eta 1792an argitaratu eban *A Vindication of the Rights of Woman* (Andren eskubideen aldarikapen bat) Wollstonecraft-en alabea zan.

LEHIAKETEAK

Lemoako Jaietako Kartel Lehiaketea abian dago**Erredakzioa**

Lemoako Jai Batzordeak Jaietako Kartel Lehiaketea abiatu dau. Lanak aurkezteko atzen eguna bagilarren 3a da. Lemoako hartu daiekie parte eta 175 euroko sari bi egongo dira. Kartelean, "Lemoako jaiak 2019" esaldia agertu behar da.

Kartelak udaletxean aurkeztuko dira egilearen sinadura barik, A4 neurrian. Orientazio bertikala izango dabe eta eskuz edo ordenagailuz egindako kartelak onartuko dira.

JANTZEA

Dantzari Txiki Eguna Diman**Erredakzioa**

Dimako Gazte Barri Dantza Taldeak Dantzari Txiki Eguna antolatu dau maiatzaren 11rako. Arratiako jantza taldeetako 120 ume inguruk parte hartzea espero dabe antolatzaileak.

Eguna 10:45ean hasiko dabe jantzarri harrerea eginaz, 11:00etan hamaiketako jantza dabe indarrez hasteko eta 11:30ean izango da desfilea. Desfileak eta hurrengo ekitaldiak, jantzarrien bilkura herriko plazan 13:00etan, Arratiako ume jantzarriak eta euren jantzak ikusteko aukerea emongo deutse Dimara hurrertzen diran zaleai. Ondoren bazkaria, eta bazkalostean, 16:00etan, erromeria egongo da EinGO Kantan eta Dantzan taldeagaz.

Gazte Barri Dantza Taldea guraso talde batek sortu eban eta 30 urte betetzear dago. Lau urtetik aurrerako umeak dagoz bertan, edadearen arabera taldeetan.

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA
• Psikologia
• Logopedia
• Fisioterapia
• Ulermen tailerra
• Jarrera arazoak
• Emozioen tailerra
• Psikomotrizitatea
• Adimen emozionala
• Trebetasun sozialak
• Estimulazio goiztiarra
• Eta askoz gehiago...
652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

Kili-Kili
Antzerki Puntuzkora
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 631 63 81

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK
Elexalde, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 631 64 82 - 906 864 018

bizkaifisios
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 35 08
igorre@bizkaifisios.com
ANDRA MARI KLINIKEA
Postzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@bizkaifisios.com

JAIALDIA

Nøgen taldea kartelburu Lemoa Kustik jaialdian

Maiatzaren 11n, Udalak antolatuta, musika akustikoa, artea, garagardoa eta janariaren Lemoa Kustik jaialdiaren hirugarren edizinoa izango da. Hamar artista, bikote edo taldek zabalduko dabe euren musikea herrian. Nøgen, Dead Bronco, Jon Gurrutxaga & Urbil Artola, James Room, Mississippi Queen Duo, Empty Barrels, Larregi, Lorelei Green eta Birkit dira talde eta artista horreek.



Nøgen taldea.

Erredakzioa

Birkit, Gasteizko musikagile eta gitarra elektriko jotzaileak emongo deutso hasikerea jaialdiari goizeko 11:30ean, bere kantu lasaiakaz.

Arraibin eskainiko dau bere emonaldia, haur txoko edo Tipirrika gunean.

Ondorengo hiru kontzertuak eskolako aterpean izango dira. Han, garagardoa eta jatekoa be egongo

dira. "Food truck bi egongo dira eta aurren alkartrukean Finlandiara doazen gazteak be egongo dira bokadilloak saltzean" azaldu deutso BEGITURI Izkander Fernandez zinegotzi eta jaialdiaren sortzaileak. Ordubatak laurden gitxiagotan Lorelei Green talde bilbotarra egongo da, euren folk-pop melodikoa eskaintzen. Ordubata t'erdietan barriz, Larregi Lemoako taldearen txandea izango da. Akustikoa eta pianoagaz joko dabe. Gero bazkalorduan Empty Barrels taldeak Irlandako kantu zaharrakaz gozatzeko aukerea emongo deutse bertaraturatukoai.

Arrastian herrian zehar

Tartexo bat egin eta bazkalostean, 16:30ean, hasiko dira barriro kontzertuak. Mississippi Queen taldeko abeslaria eta gitarra jolea etorriko dira Mississippi Queen Duo izenpean. Arlonagusia plazan egongo dira, soul eta 1950 hamarkadako Estatu Batuetako musikea eskaintzen. Seiretan, jolas plazan, James Room bakarlarri bilbotarrak, bere abots sakona eta country "iluna" ekarriko ditu Lemoara. Zazpiretan Gudarien parkean, Jon Gurrutxaga & Urbil Artola izango dira, euren soul eta rock lasaiaren doinuakaz ingurua girotzen.

Atzenengo talde biak, kontzertu formatoan eskolako aterpean joko dabe. Dead Broncoren txandea 21:30ean izango da. Jatorriz estadubatuarra baina aspaldi Getxon bizi dan musikari honek, country indartsua, zikina eta nahastua egingen dau.

Jaialdiari amaiera Nøgen taldeak emongo deutso, atzen urtean euskal eszenan gehien igon dan taldeak, hain zuzen be. Euren pop estiloko musikeagaz nahastutako folk britaniarrak, jantzan ipiniko dituzte talde berezi honen zaleak.

KULTURA ASTEA

Hamaika aukera Lemoako Memoria eta Kultura Astean

Erredakzioa

Lemoako Memoria eta Kultura Astea maiatzaren 6tik 12ra izango da. Memoriari jagokonean, hilaren 8an, eguaztenean Aitor Miñambres adituak Burdin Hesiaren inguruko berbaldea emongo dau. Lemoa gune estrategikoa izan zan Burdin Hesiaren defentsarako eta bataila gogorra bizi izan zan Lemoatzen 1937ko maiatzaren 28a eta bagilaren 5aren bitartean. Lemoatxeko batailea amaituta, frankistak, Alemaniako eta Mussoliniren italiar ejerzitoen laguntzeagaz, Burdin Hesiari eraso egin eta bagilaren 19an Bilbo mendean hartu eben. Berbaldea Jubiladuen etxeko aretoan izango da.

Bataila horren gudu zelaia eta trintxerak *in situ* ikusteko aukerea be egongo da domekan. Izan be, Udalak eta Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Gudarien parkean batu eta Lemoatxa 1937 PR Ibilbidea egingo dabe lubakietatik.

Kultureari jagokonean barriz, *Erraiak* dokumentalak emongo deutso hasikerea Memoria eta Kultura asteari astelehenen, hilak 6. Irrentziaren gainekoa da Ekain Martinez de Lizarduy Stürtzek eta Arteman Komunikazioa Koop. E.k sortu, sustatu eta zuzendutako 33 minutuko dokumental hau. Asier Lekue Arteman-eko teknikari bediazarrak dokumentala zelan egin dan kontau eta dokumentala ikusi ondoren, publikoaren galderak erantzungo ditu.

Eguenean, Lemoako Kultura Astean klasiko bihurtu dan ekitaldi bat: Arratiako Musika Eskolako Ikasleean kontzertua, hain zuzen be. Eleizan izango da arrastiko 19:00etan. Barrikuan barriz, Elizondoko Kulturgu-

neko Gela Lilan, euskeraz alkar ezetu eta berba egiteko gunea egongo da, "Berbodromoa". Kultura astean barria izan arren, ez da lehenengo aldia Lemoak Berbodromoa antolatuten dauana; Euskaraldiaren markoan egin zan lehenengoz.

Hurrengo egunean, Lemoa Kustik jaialdiak 9 kontzertu eskainiko ditu egunean zehar.

Amaitzeko, domeka arrastian, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoan *Txirinbolo* saio arrakastatsua egongo da ikusgai Kulturgunean, txikerrenen gozameneko.

Maiatzak 6, astelehena

19:00etan, *Erraiak* dokumentala. "Kobazuloetatik datorkigun oihoa. Hitzik gabeko hizkuntza" udaletxeko Pleno Aretoan.

Maiatzak 8, eguaztena

19:30ean, Burdin Hesiaren inguruko berbaldea Jubiladuen etxeko aretoan. Hizlaria: Aitor Miñambres.

Maiatzak 9, eguena

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua eleizan.

Maiatzak 10, barikua

19:00etan, Berbodromoa, euskeraz alkar ezetu eta berba egiteko gunea. Elizondoko Kulturgunean.

Maiatzak 11, zapatua

Lemoa Kustik. Egitaraua agendan.

Maiatzak 12, domeka

10:00etan, Lemoatxa 1937 PR Ibilbidea, Gudarien parkean; **18:00**etan, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak Kulturguneko plazan (Euria bada, eskolako aterpean).

DUNBA

Antxinako ospakizunak Artean

Arteko eskolako 2. mailako ikasleak

Gu Arteko 2. zikloko ikasleak gara. Munduko ospakizunak landuten gabiz:

- Gabonak
- Karnabalak
- Ezkontzak
- Arimen gaua
- San Juan sua...

Artean jai honek zelan ospatzen ziran jakin gura genduan, Luziano Artetxe gure gelara konbidau genduan. Luziano 96 urteko gizona da Eleixabeiti auzokoa.

Bere gazte garaian:

Karnabaletan ez ziran moztortuten, batzuetan eropa berezia janzen eben bakarrik. Egun horreetan tostadak, txarri hankak eta belarriak jaten ebezan.

Karnabalak amaitu ondoren hautsen eguna ospatzen zan. Abadeak bekokian kurutze bat egiten eutseen hautsagaz.

Aste Santuan bijilia egiten zan, okelarik ez zan jaten (barikuetan).

San Juan egunean, eskuan galzua emonda soloari bueltea emoten jakon abesti hau kantatzu:

"San Juan bagilea, denbora ederrean,

artoak eta gariak, gorde sapoak



Arteko ikasleak Luziano Artetxegaz.

eta sugeak erre".

Gabonetan, familiagaz afaltzen zan baina ez egoan opari askorik. Gabonetako afaria haxe zan: orio aza, bakailaoa eta intxaur-saltsea.

Urte Barri egunean kantetan joaten ziran auzorik auzo. Abestia



haxe zan:

Urte barri, txarri belarri, dekonak ez dekonari, nik ez dekot eta niri. Gauza gitxi biltzean eben: Diru apur bat, gozoak, intxaurrak... Ezkontzak etxeetan ospatzen ziran. Oinez joaten ziran eleizara. Luzianoren alkarrizketea entzun ondoren konturatu gara gaur eguneko ospakizunak eta antxinakoak oso desbardinak dirala.

AGENDEA

MAIATZAK 2
DIMA

Garbigune mobikorra. Maiatzaren 3ra arte.

IGORRE

Garbigune mobikorra. Maiatzaren 3ra arte.



Maiatzaren 9ra arte, Ramon Serrasen *Irakurlea hondartzan* erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

19:30ean, Zinekluba *La jaula de oro* Lasarte Aretoan.

18:30ean, pasta tailerra Axular Herriko Tabernan.

LEMOA

Maiatzaren 24ra arte, bagilaren 1ean izango dan Euskal Jairako txartelak salgai udaletxean.

Bagilaren 3ra arte, Lemoako Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea, udaletxean.

Bagilaren 28ra arte, Lemoako XXII. Artisautza Azokan izena emoteko epea, udaletxean.

ZEBERIO

Hilaren 9ra arte, Austarri Mendi Taldearen maiatzaren 12rako mendi urtekerarako izena emon daiteke austarrimenditalka@gmail.com helbidean edo 665 735 054 edo 656 415 597 telefonoetan.

MAIATZAK 3

ZEBERIO

Santa Kurtzeko jaiak. 12:00etan, mezea, erramu ohiturea, ondoren kopautxo girotua; 19:00etan, txupinazoa; 20:30ean, tortillen aurkezpena; 21:00etan, sari banaketea; gabaz, parrilladea eta albokariak.

MAIATZAK 4

AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Artean dagoan Aner Mimenzaren baserri ekologikora bisita. Ortu ekologikoa eta erlezaintza landuko dira. Izena emon gorbeia.pärke.naturala@bizkaia.eus helbide elektronikoan, Parketxean edo 94 673 92 79 telefonoan.

Karpoko jaiak. 12:00etan, mezea eta ostan barauskarria Karpon; 13:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua; 14:00etan, Gisadu eta Paella Lehiaketan aurkezpena; 14:30ean, bazkari herrikoa; 18:30ean, herri kirol desafioa Goikokalen; 19:30ean, EinGO Kantan eta Dantzan taldeagaz poteoa.

BEDIA

09:30etik 15:00etara, Mendexa Park Abentura familia urtekeria. 5 urtetik aurrerako umeentzat nagusi batez lagunduta.

IGORRE

20:30ean, Ainhoa Uriaren piano

kontzertua Lasarte Aretoan.

LEMOA

Arantzeko jaiak. 11:30ean, txupinazoa; 11:45ean, iturrira ibilbidea; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, Briska Txapelketea; 20:00etan, tortilla aurkezpena; 21:00etan, Auzo Dj-a.



ZEANURI

Dantzari Eguna. 11:00etan, alkartu plazan; 11:30ean, kalejireia; 12:00etan, jantza ekitaldia, 100 Baietz! Pandero Erronkea; 14:30ean, bazkaria; 18:00etan, erromeria Bilboko Musika Eskolako Fanfarria; 20:00etan, triki-gaita-pandero giroa.

ZEBERIO

09:00etan, Untzuetan Nafar Gaztelura igoera Ugaoko zelai tabernatik; 11:30ean, hamaiketako herrikoa Untzuetan; 12:00etan, aurrekua eta ekitaldia; 15:00etan, herri bazkaria Ugaoko torretxean.

Santa Kurtzeko jaiak. 15:00etan, norberak etxetik daroanagaz bazkaria, ondoren, bertsolariak; 18:00etan, jolasak ume eta helduentzat; 19:30ean, txokolatea; 20:00etan,

trikitilariak; 22:00etan, kontzertuak.

MAIATZAK 5

AREATZA

Karpoko jaiak. 10:30ean, V. Ganadu eta Artisau Azokea; 11:00etan, Bizkaiko eskolarteko finalerdiak, paleta goma Areatzako neskak, alebinak eta infantilak; 12:30ean, baskulearen apustua; 13:30ean, azokearen amaiera eta zozketea.

IGORRE

17:00etan, zinea *Alfonbra magikoa*; 19:30ean, *Dolor y gloria*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako goizeko urtekeria. Bizkargi (555 metro).

ZEANURI

09:00etan Joko Alaik antolatuta, Zeanuriko Erroten XIV. Ibilaldia. 08:30ean, izen emotea. Plazan.

MAIATZAK 6

LEMOA

19:00etan, *Erraiak* dokumentala. Udaletxeko Pleno Aretoan.

ZEANURI

Garbigune mobikorra. Maiatzaren 10era arte.

MAIATZAK 7

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, Udalak antolatuta, Zainduz Programearen jarduerak,



Bertsoak, musikea eta beste bat-bateko arteak Dimako bertso saio literarioan

Dimako Udalak, euskeratik eta euskeraz, euskal kulturea bultzatu guran, Bertso Saio Literarioa antolatu dau maiatzaren 4rako. Trama literarioa, bertsoak, musikea eta irudiak sortuko ditue bertan hainbat euskal artistak. Hitzordua 19:00etan da eskolako teilatuean.

Danele Sarruigarte idazlea izango da tramagilea, berak sortuko dauz trama eta istorioa. Trama horri, Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Ane Labaka bertsolariak ipiniko deusiez berbak bertsoen bidez, istorioa gorpuztu eta ezustekoari bidea emonaz. Iban Amorantek zuzenean musikatu dau eta irudiak be egongo dira tartean.

mendekotasun bat daukienez senide zaintzaileentzako *Mindfulness* tailerra, Josefina Fernandez psikologoaren eskutik, udaletxean.

MAIATZAK 8

LEMOA

19:30ean, Burdin Hesiaren inguruko berbaldia Jubiladuen etxeko aretoan.

MAIATZAK 9

IGORRE

18:30ean, 6. mailatik gorako gurusoai zuzenduta, *Bidean: Lanbide Heziketa* jardunaldia. Hizlariak, Eusko Jaurlaritzako Rikar Lamadrid eta Zulaibar Arratiako Lanbide Heziketa Ikastegiko Laura Corbacho, Arratia Institutuko Aretoan.

LEMOA

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua eleizan.

MAIATZAK 10

IGORRE

Hilaren 28ra arte, Santiago Ydanez-en *Frankenstein* serigrafia erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

LEMOA

19:00etan, Berbodromoa, euskeraz alkar ezetu eta berba egiteko gunea. Elizondoko Kulturgunean.


MAIATZAK 11

ARTEA

21:00etan, Highlanders taldearen kontzertua Kultur Etxean.

DIMA

Dantzari Txiki Eguna. 10:45ean, jantzarai harrerea; 11:00etan, hamaiketakoa; 11:30ean, desfilea; 13:00etan, jantzaraien bilkura herriko plazan; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, erromeria EinGO Kantan eta Dantzan taldeagaz.



10:00etatik 13:00etara, Andren Jabekuntza Eskolako Ikasturte Amaierako Topaketea eskolako aretoan.

IGORRE

17:30ean, Ene Kantak taldeak *Satorjator: lurraren bihotzera bidia* umeentzako antzerkia Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *Nosotros* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Lemoa Kustik. 11:30ean, Birkik, Tipirika Gunean; 12:45ean, Lorelei Green eskolako aterpean; 13:30ean, Larregi eskolako aterpean; 14:15ean, Empty Barrels eskolako aterpean; 16:30ean, Mississippi Queen Duo, Arlonagusia plazan; 18:00etan, James Room jolas plazan; 19:30ean, Jon Gurrutxaga & Urbil Artola Gudarien parkean; 21:30ean, Dead Bronco eskolako aterpean; 23:00etan, Nøgen eskolako aterpean.

ZEANURI

10:00etan, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXXVIII. edizioa. Ekintzak: gaztaia egin, arpana egin, zeramika

tailerra eta arto txuleta eta sagardoa dastaketea. Goiz guztian zehar, herriko bistulari eta trikitilariak plaza eta inguruetan; 12:30ean, abereen sari banaketea plazan; 18:00etan, idi proba erakustaldia; 19:30ean, herri kirolak: Aitzol Atutxa eta Julen Larrea azkoran, eta Inhar Urruzuno harria jasoten; 23:00etan, Tximeleta taldeagaz erromeria Zeanuriko Pintura taldearen erakusketea udaletxe azpian egun osoan.

MAIATZAK 12

DIMA

11:00etatik 14:00etara, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eskulangintza Azokea. 12:00etan, txahala zozketatuko da.

IGORRE

17:00etan, zinea *Dumbo*; 19:30ean, *Nosotros* Lasarte Aretoan.



LEMOA

10:00etan, Lemoatxa 1937 PR Ibilbidea, Gudarien parkean; 18:00etan, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak Kulturguneko plazan (euria bada, eskolako aterpean).

ZEBERIO

08:00etan, Austarri Mendi Taldearen urtekeria Jokano-Montemayor-Kruzeta-Repiko-Osma. Plazan.

MAIATZAK 13

LEMOA

11:00etatik 14:00etara, maiatzaren 24ra arte, jubiladuen biagean izena emoteko epea zabalik udaletxean. Biagea Tenerifera izango da urri lehenengoaren 27tik urri bigarrenaren 6ra arte.

Maiatzaren 17ra arte, udalekuan izena emoteko epea zabalik Udal Liburutegian edo webgunean.

19:00etan, familientzako batzar informatiboa: Zelangoak izango dira aurtengo udalekuak? Ludotekan.

MAIATZAK 14

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, Udalak antolatuta, Zainduz Programearen jarduerak, mendekotasun bat daukienez senide zaintzaileentzako *Mindfulness* tailerra, Josefina Fernandez psikologoaren eskutik, udaletxean.



MAIATZAK 15

ZEANURI

San Isidro. 11:30ean, umeentzako puzgarriak; 11:30ean, mezea San Isidron; 12:30etik aurrera, trikitilariak plaza eta tabernetan; 17:30ean, idi proba erakustaldia. Zeanuriko Pintura taldearen erakusketea udaletxe azpian egun osoan.

AKIKMIKO

Zorrozkiilo



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

BIZITZA BIKO ETXEA SALGAI

Bizitza biko etxea saltzean dot Diman, plaza ondoan. 210 m² ditu, hiru solairutan bananduta, lursaila etxe inguruan eta atzean. 635 737 879 (Aiora).

MOTORRA SALGAI

125 ccko motorra salgai. Kymco Agility City. Prezio onean. Interesdunak 699 615 008 telefonora deitu.

AIREA GIROTZEKO GAILUA SALGAI

Airea girotzeko gailua saltzean dot, 800 euro, barri-barria. Egurrezko sehaska opari. Interesdunak 620 276 471 telefonora deitu.

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot,

Sol tonoa balego hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabilzan familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

ORTU BILA

Lur zati baten bila gabiz Igorren ortu txiki bat eta animalia batzuk ipinteko asmoagaz. Interesdunak 660 638 324 telefonora deitu.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Satorjator* antzezlanerako.



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Dolor y gloria* filmarako.



Itsaso Bengoetxea (Igorre)
Oskar Gorostiaga (Arantzazu)

Jose Antonio Barrenexea (Igorre)
Alasne Artetxe (Artea)

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tlfnoa: 94 631 92 96 • semmedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

begitu
argitaile elkartea

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 090 482 8300 / 090 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-49-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejateetxea@hotmail.com
Tel: 94 631 52 83

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkara egin eta bukanduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

DANEL ELEZKANO

"Egindako lan guztiak merezidu izan dau holango momentu bat biziteagaitik"

85 kilo, 1,87 metro eta 25 urte ditu Danel Elezkano pelotariak. Bere debuta 2012ko abuztuaren 18an izan zan, Bilboko Bizkaia pelotalekuan. Hiru urtegez hasi zan pelotan eta lau urtegez Zaratamoko klubean izena emon eban. Kantxan bakarrik ez, unibersidadeko ikasketetan be ondo moldatuten da. ADE ikasi dau Sarrikon eta tributazioaren inguruko master bat egin dau. Elezkano Zaratamon bizi izan da oin dala sei urtera arte. Harrezkeroztik Diman bizi da.

Rakel Aldekoa Diez

Pelotan sekulako lorpenak ditu, 2011n, Baque torneoko buruz buruko txapeliduna izan zan Gazte mailan, baita El Diario Vasco-Bankoa Lehiaketako txapeliduna Promesetan eta Euskadiko binakako txapeliduna Gazte mailan. 2013. urtean Promozinozko binakako txapelidunordea izan zan, 2018. urtean EPELen binakako txapelidunordea eta aurten binakako txapeliduna izan da Beñat Rezustagaz batera.

Zaratamokoa zara baina Diman bizi zara. Noz eta zergaitik etorri zinan Dimara?

Ama Dimakoa da eta oin dala 12 urte gurasoak etxe bat egin eben izekoagaz batera. Lehenengo urteetan Zaratamon bizi ginanean astegoienetan eta udan joaten ginan Dimara eta oin bertan bizi gara.

Non ikasi zenduan pelotan? Zein izan da zure ibilbidea pelotari moduan?

Pelotan oso gazterik hasi nintzan; anaiak be pelotan egiten eban eta bera ikusten frontoira joaten nintzan. Arrastiak pasetan nebanan frontoian edo aitagaz edo anaiagaz eta lau urte ingurugaz Zaratamoko klubean apuntau nintzan. Gazteena nintzan diferentziagaz. Gainera, normalean 8-9 urtegez hasten zara txapelketak jokotuten eta ni 6 urtegez hasi nintzan. Bertan, Haur mailara arte egon nintzan eta gero Galdakaora pasau ginan, anaia eta biok, Zaratamon nire edadeko bakarra nintzalako. Galdakaon urte batzuk egin eta Gazte mailan, Asegarcegaz (oin Baiko) akordio batera heldu ginan eta debutau egin neban. Gero profesioaletan, 4 urte Asegarcen egin ondoren Aspera aldatu nintzan. 2016tik Aspen nago.

Zer moduz Aspen?

Ezin naz keju, oso-oso gustura

nago. Bere sasoiaren esan neban aldaketea aukera deportiboakaitik bakarrik zala, partidu estelarrak eta txapelketak jokotuteko. Aspek aukera hori emon eustan lehenengo egunetik, konfiantza handia ipini dau nigan, eta aukera horreek emon deustezanean, ni saiatu naz aprobetxetan. Emaitza onak lortu dodaz, baina sasoi onak etorri diran moduan txarrak be etorriko dira.

Egia esan urte bi honeetan asko disfrutau dot, lesinoak errespetau egin nabe, eta lesinoak errespetau ezkeru kontinuidade bat izaten da.

Sano eskertuta nago enpreseari eta gustauko jatan be Jokin Etxaniz gorapatutea, niretzako beragaz topo egitea bide honetan subertea izan dalako. Beti gainean dagoan entrenadorea da eta gugaz hartu-emon estua dauka.

Eskoieko eskuan jaiotzetik lesino bat daukazu. Halanda be esan lei ez dala oztopo izan zuretzat. Ze eragin izan dau edo dauka horrek zuzan?

Inoz be ez dot euki inongo minik besoan. Arraroa da, ze pelotan egiteko besoa guztiz-gutztiz ez luzatutea oztopo bat izan leitekela emoten dau, baina minik ez dot euki inoz inon eta oztopoa ba ez dakit zer esan... nik beti esan dot nire puntu sendoenetako bat ezkerre dala, eta uste dot, eskoieko besoa normal eukiko baneu, ezkerrekoa ez nebala hainbeste landuko. Langundu egin deusta horretan. Txikitan be ezkerregaz lan asko egin neban eta euki dodazan entrenatzailei be eskerrak emon behar deustedaz eskoieagaz jokotuten behartuteagaitik. Horregaitik sakea beti egin dot eskoieagaz entrenamentuetan, eta partiduetan be saiatu naz hobetuten.

Zein da zure egunerokotasuna? Zenbat ordu emoten dozu entrenetan?

Entrenetan pelotari bakotxak

bere metodoak daukaz. Aspek prestatzaile fisiko bat dauka baina Tolosan dago eta aukerea emoten deuskue prestatzaile bat egaz geure kontura ibilteko. Nik, debutau aurretik Aitor Erauzkin euki neban prestatzaile. Gaztetatik ezetu izan dot Lemoakoa dalako. Beragaz oso gustura nago, konfiantza handia daukagu. Berak badaki zelangoa dan nire gorputza, noz nagoan ondo, noz gitxiago... eta planifikazioa diferentia izaten da. Txapelketetan partidu egunak be ez dira bardinak, batzuetan barikuetan eta beste batzuetan zapatuetan, partidu egunaren arabera egiten doguz entrenamentuak. Normalean 2 edo 3 egunetan, Lemoan egiten dot entrenamentu fisikoa, eta gero beste bi egunetan saiatuten naz Jokin Etxanizengana joaten. Binakako Txapelketan adibidez, lau hilabete dira eta Iruñean jokatu ezkeru, ba saiatuten gara Iruñeako frontoian entrenamentua egiten; Bilbon jokatu ezkeru Bilbon, eta abar. Eta txapelketatik kanpo, Eibarren egiten dodaz entrenamentuak.

Binakakoa irabazi dozu. Zer suposatzen dau horrek zuretzat?

Kirol ikuspuntutik ez dot uste pelotari diferentia nazarik finala jokatu baino ordu bete arinago nintzanekoa, baina igarten da ilusino sortu dodala inguruan. Sano aste politak izan dira honeek. Igaz finala jokotuteko aukerea izan neban eta esan neban nigaitik baino gehiago inguruko jenteagaitik egin eustala ilusino; eta aurten be bardin pentsetan dot. Gauza sano polita izan da, amets bat bete dot. Uste dot oin arte egindako lan guztiak merezidu izan dauala holango momentu bat biziteagaitik.

Diman ospatu zenduan ezta? Zelangoa izan zan harrerea?

Diman egin genduan ospakizuna, igazko moduan. Oso momentu hunkigarria izan zan. Dimara heldu ginan eta pilo bat jentek egin euskun harrerea. Gero frontoian afaldu genduan danok batera, eta bueno, bertan ikusten dozuz, familia, Zaratamoko lagunak, kuadrillea, Dimako lagun guztiak... Berotasun hori igarten dozu eta nire kasuan behintzat subertea daukadala uste dot. Izan be, momentu onetan baino momentu txarretan be, eta benetan behar izan dodazanean hor euki dodazalako bai familia eta bai lagunak lagunduteko prest.

Rezusta izan dozu bikotekide. Zelangoa da zuen arteko hartu-emona?

Beñategaz sano hartu-emon estua daukat. Binakako Txapelketea luzeena da, lau hilabete, eta urte biotan partidu guztiak jokatu doguz. Ordu asko pasau doguz alkarregaz eta kantxatik kanpo be hartu-emon oso ona daukagu. Askotan Eibarren entrenetan dogu alkarregaz eta txapelketetan, entrenamentu eta partidu asko alkarregaz izan doguz.

Binakakoa irabazi eta oin Binakakoa prepetan zabiz. Horretan be txapela ekarteko asmotan, ezta?

Entrenau ahalik eta gehien egingo dogu baina badakit binakakoa irabaztea oso gata dala. Gainera ez daukat neure burua binakako pelotarizat, ze Binakako Txapelketea irabazteko sano golpe handia euki behar da. Atzen urteotan binakako jokoak euki dauan aldaketeak lagundu ahal deusta, gaur egun airez asko jokotuten dalako. Igaz harritu egin nintzan emondako maileagaz. Finalerdia jokatu neban eta aurten be ilusino bardinagaz preparauko dot.

Zer gurago dozu binakakoa ala binakakoa? Modalidade bakotxaren alde onak eta txarrak.

Niri hiru distantziak gustetan jataz asko: bai binaka, bai eskuz binaka, eta bai lau t'erdikoa. Eta gainera uste dot niretzako be ona dala hirurak jokotutea. Entrenamentuak desbardinak izaten dira: eskuz binaka eta lau t'erdiko entrenamentuak oso gogorak izaten dira normalean. Nire dohaiak ikusita hiruretatik gitxiengaz doana frontoi osokoa da, igaz lau t'erdian baino emaitza hobek lortu nebazan arren.

Zeintzuk dira zure helburu profesionalak pelotan?

Disfrutetea ahalik eta gehien, batez be momentu onak disfrutetea, ze txarrak be euki dodaz eta txarretan sufridu egiten dot. Ni, egia esan oso pozik bizi naz.

Beti amestu egin dot pelotari izatea eta lortu egin dot. Oin partidu garrantzitsuak jokotuteko aukerea daukat.

Kirolarien bizitza profesionala ez da luzea izaten. Ondoren zer egingo dozun pentsautu daukazu?

Ikasten beti ondo ibili naz. Enpresen administrazioa eta direkzioa ikasi neban eta uste dot biharko egunean horregaz zerikusia daukan zeozertan lan egingo dodala. Momentuz pelotan zentru gura dot, baina ikasketak ez dodaz alde batera itxi, urtero saiatuten naz zeozer egiten. Oin dala urte bi master bat egin neban. Oin, ingelesagaz nabil burrukan.

Nortzuk izan dira zuretzat erreferente pelota munduan? Eta bizitzako beste arloetan?

Bizitzako beste arloetan familia, hau da, aita, ama eta anaia dodaz erreferente. Pelotan lehen esan dodan moduan, izan dodazan entrenatzaile guztiak eskertuten dodaz. Eta idoloren bat aitatutearen, goi mailako pelotari guztiak gustau jataz, zeozer berezia euki dabe hor goian egoteko: Oinatzek, Xalax, Titinek... danak. Baina uste dot denpora askoan ez doguzala Aimar eta Juan lango beste bi ikusiko. Pelotari perfektuak izan dira. Eta niri Abel Barriola beti gustau izan jata nahiz eta atzelaria izan. Txikitatik asko jarraitu izan dot eta uste dot eredu izan dala bai kantxan eta bai kantxatik kanpo.

San Mamesen ohorezko sakea egin zenduan Athletic eta Rayo Vallecanoren arteko partiduan. Zer sentidu zenduan?

Ia-ia finalean baino urduriago egon nintzan! (barrezka). Inpresino emoten dau futbol zelaira sartu eta hainbeste jente ikustek. Ez gagoz ohituta, futbola beste mundu bat da. Oso hunkigarria izan zan.